1. El régimen de compatibilidad e incompatibilidad entre las prestaciones económicas de dependencia y los servicios integrados en la red foral de servicios sociales se articula en los siguientes términos:

EK\CV GAO-I-2017-08643

| *Gizarte zerbitzuen foru sarean sartzen diren zerbitzuak* | *Bateragarritasuna edo bateraezintasuna mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoekin* |
|---|---|
| Egoitza arreta iraunkorra | Ez da bateragarria hauekin: FIZPE; LPPE; ZLPE, salbu desgaitasuna duten pertsonentzako eta buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zerbitzuen kasuan, horiek bateragarriak izango baitira ZLPErekin eguneko zentroen kasuan. |
| Eguneko arreta | Bateragarria hauekin: FIZPE; LPPE. |
| Arreta okupazionala | Bateragarria hauekin: FIZPE; LPPE. |
| Aldi baterako egonaldiak | Bateragarria aldi batean (bi hilabete urtean, jarraian edo ez jarraian), hauekin: FIZPE; LPPE. |
| Zentro sozio-sanitarioa, ospitale psikiatrikoa edo aldi baterako egoitza arreta eskaintzen duten beste osasun egitura batzuk | Bateragarria aldi batean (bi hilabete urtean, jarraian edo ez jarraian), hauekin: FIZPE; LPPE. |

| *Servicios integrados en la red foral de servicios sociales* | *Compatibilidad o incompatibilidad con las prestaciones económicas de dependencia* |
|---|---|
| Atención Residencial Permanente | Incompatible con: PECEF; PEAP; PEVS, salvo en el caso de los servicios residenciales destinados a personas con discapacidad y a personas con enfermedad mental que serán compatibles con PEVS para centro de día. |
| Atención diurna | Compatible con: PECEF; PEAP. |
| Atención ocupacional | Compatible con: PECEF; PEAP. |
| Estancias temporales | Compatible temporalmente (dos meses al año, continuados o discontinuados) con: PECEF; PEAP. |
| Centro sociosanitario, Hospital psiquiátrico u otras estructuras sanitarias que ofrecen atención residencial con carácter temporal | Compatible temporalmente (dos meses al año, continuados o discontinuados) con: PECEF; PEAP. |

2. Ulertu behar da, aurreko atalean aurreikusitako bateragarritasun kasuek ez dituztela eragozten foru dekretu honen 16. artikulua ezartzearen ondorioz etor daitezkeen murrizketak.

3. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira, onuradunak gizarte zerbitzuen foru sarearen barneko edozein gizarte zerbitzuren itxaron zerrendan sartzearekin.

## 2. ATALA. MENDEKOTASUNAREN ARLOKO PRESTAZIO EKONOMIKOETARAKO ESKUBIDEAREN TITULARRAK: BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

*8. artikulua. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoetarako eskubidearen titularrak.*

1. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoetarako eskubidearen titular izan daitezke mendekotasun egoeran dauden pertsonak, eskaera egiten duten egunean, prestazio horietako bakoitza eskuratzeko foru dekretu honek arautzen dituen baldintza orokorrak nahiz bereziak betetzen dituztenean.

2. Foru dekretu honen ondorioetarako, artikulu honetako 1. atalean aipatzen diren pertsonek beren kontura edo legezko ordezkari, borondatezko ordezkari edo egitatezko zaintzaileen bidez jardun dezakete. Horretarako, ordezkaritza hori behar bezala egiaztatu beharko da, eta ordezkariak dagokien bezala inskribatuak egon beharko dute: legezko ordezkaritzaren kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Legezko Ordezkarien Erroldan, eta borondatezko ordezkaritzaren eta egitatezko zaintzaren kasuan, berriz, Foru Aldundi horretako gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko Borondatezko Ordezkarien Erroldan.

2. Los supuestos de compatibilidad previstos en el apartado anterior deberán entenderse sin perjuicio de las minoraciones que, en su caso, pudieran corresponder en aplicación del artículo 16 del presente decreto foral.

3. Las prestaciones económicas de dependencia serán compatibles con la inclusión de la persona beneficiaria en las listas de espera correspondientes a cualquier servicio social integrado en la red foral de servicios sociales.

## SECCIÓN 2.ª TITULARES DEL DERECHO A LAS PRESTACIONES ECONÓMICAS DE DEPENDENCIA: REQUISITOS Y OBLIGACIONES

*Artículo 8. Titulares del derecho a las prestaciones económicas de dependencia.*

1. Podrá ser titular del derecho a las prestaciones económicas de dependencia toda persona en situación de dependencia que, a la fecha de presentación de la solicitud, reúna tanto los requisitos generales de acceso como los específicos regulados para cada una de dichas prestaciones en el presente decreto foral.

2. A los efectos del presente decreto foral, las personas referidas en el apartado 1 del presente artículo podrán actuar por sí mismas o a través de representante legal, de representante voluntario o de guardador/a de hecho, debiendo acreditarse debidamente dicha representación y debiendo la persona representante estar inscrita como tal en el Censo de Representación Legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los casos de representación legal, y en el Censo de Representación Voluntaria del departamento competente en materia de servicios sociales de dicha Diputación, en los casos de representación voluntaria y de guarda de hecho.

EK\CV GAO-I-2017-08643

*9. artikulua. Prestazio ekonomikoak eskuratzeko baldintza orokorrak.*

1. Izaera orokorrarekin, mendekotasunaren arloko edozein prestazio ekonomiko eskuratzeko, eskatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu eskaera egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo legezko egoitza Espainiako Estatuan izatea. Baldintza hau ez dute bete beharko mendekotasun egoeran dauden adin txikikoek, 2015eko urriaren 6ko 185/2015 GZESren Zorroari buruzko Dekretuaren 9.5 a) artikuluan aurreikusten denaren arabera.

b) Marratxo hauetakoren batean ezarritako egoitzaren inguruko baldintzak betetzea:

— Espainian gutxienez 5 urtean legez bizi izana; horietatik bi, eskaera aurkezten den egunaren juxtu aurrekoak izan behar dira, 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Mendekotasun Legearen 5.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Espainiako nazionalitatea duten edo eskuratu duten pertsonen kasuan, nahikoa izango da aldi horretan benetan bizi izan direla egiaztatzea, 2015eko urriaren 6ko 185/2015 GZESren Zorroari buruzko Dekretuaren 9.5 b) artikulua aplikatuz.

— Europako Batasuneko estatuetako herritarren eta arlo honetan Europako Batasunaren araudia aplikagarria den beste estatu batzuetako herritarren kasuan, aurreko marratxoan aurreikusiriko aldiak egiaztatu ahal izango dira estatu horietako bat edo batzuk kontuan hartuz, Espainia kontuan hartu ordez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 883/2004 (EB) Erregelamenduak, Gizarte Segurantzako Sistemen koordinazioari buruzkoak, ezarritakoaren arabera.

— EBz kanpoko beste herrialde batzuetako nazionalitatea dutenen eta eskaera egiten duten unean Espainian legezko egoitza dutenen kasuan eta, betiere, aurrez EBko estatu batean edo batzuetan legez bizi izan badira, atal honetako lehenengo marratxoan aurreikusten diren aldiak egiaztatu ahal izango dira estatu horietako bat edo batzuk kontuan hartuz, Espainia kontuan hartuz egiaztatu ordez, 2010eko azaroaren 24ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1231/2010 (EB) Erregelamenduaren arabera. Horren bidez, zabaldu egiten da 883/2004 (EB) Erregelamenduaren eta 987/2009 (EB) Erregelamenduaren aplikazioa, eta kontuan hartzen ditu beste herrialde batzuetako nazionalitatea dutenak, soilik nazionalitate hori dela-eta erregelamendu haiek babesten ez dituztenak.

Hizki honetan arautzen den baldintza, aurretik aldi batean bizi izanari dagokiona, ez zaie eskatuko:

— Mendekotasun egoeran dauden adin txikikoei.

— Atzerrira joandako eta itzulitako espainiarrei, betiere Espainiara itzultzeko orduan dagokion Espainiako kontsuletxeko matrikula erregistroan baja eman izana egiaztatzen badute.

c) Eskaera aurkezten den egunean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea eta bertan izatea benetako egoitza.

d) Mendekotasun egoera aitortuta edukitzea, edozein gradutakoa dela ere.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiak eta dagokien udaleko gizarte zerbitzuek eskatzen duten informazioa ematea eta dokumentazioa aurkeztea, informazio eta dokumentazio hori beharrezkoa bada eskatzen den mendekotasun arloko prestazio ekonomikoa ematea edo ukatzea erabakitzeko.

f) Udaleko gizarte zerbitzuen aldeko egokitasun txostena izatea, zerbitzu horiek edo Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuak beharrezkoa irizten badute prestazio ekonomikoaren egokitasunari buruz berariazko erabaki bat ematea.

*Artículo 9. Requisitos generales de acceso a las prestaciones económicas.*

1. Con carácter general, para acceder a cualquiera de las prestaciones económicas de dependencia la persona solicitante deberá reunir los siguientes requisitos en la fecha de la solicitud:

a) Poseer la nacionalidad española o tener la residencia legal en el Estado Español. Este requisito no será exigible en el caso de las personas menores de edad en situación de dependencia, de conformidad con lo previsto en el artículo 9.5 a) del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera del SVSS.

b) Cumplir los requisitos de residencia establecidos en alguno de los siguientes guiones:

— Haber residido legalmente en España durante al menos cinco años, de los cuales dos deberán ser inmediatamente anteriores a la fecha de presentación de la solicitud, de acuerdo con lo previsto en el artículo 5.1. de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Dependencia. Para las personas que tengan o hayan adquirido la nacionalidad española será suficiente con acreditar la residencia efectiva durante dicho periodo, en aplicación del artículo 9.5 b) del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera del SVSS.

— En el caso de ciudadanos y ciudadanas de estados miembros de la Unión Europea y de otros estados a los que sea de aplicación el régimen comunitario en esta materia, los periodos previstos en el guion anterior podrán acreditarse con referencia a uno o varios de dichos estados en lugar de acreditarlos con respecto a España, en los términos establecidos en el Reglamento (CE) n.º 883/2004 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 29 de abril de 2004, sobre la Coordinación de los Sistemas de Seguridad Social.

— En el caso de nacionales de terceros países (no UE) con residencia legal en España en el momento de la solicitud, y siempre que, con anterioridad, hubieran residido legalmente en uno o varios estados miembros de la Unión Europea, los periodos previstos en el primer guion de este apartado podrán acreditarse con referencia a uno o varios de dichos estados en lugar de acreditarlos con respecto a España, en los términos previstos en el Reglamento (CE) N.º 1231/2010 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 24 de noviembre de 2010, por el que se amplía la aplicación del Reglamento (CE) n.º 883/2004 y el Reglamento (CE) n.º 987/2009, a las y los nacionales de terceros países que debido únicamente a su nacionalidad, no estén cubiertos por los mismos.

El requisito de periodo previo de residencia regulado en la presente letra no será exigible en los siguientes casos:

— A las personas menores de edad en situación de dependencia.

— A las personas emigrantes españolas retornadas, siempre que acrediten la baja en el libro de matrícula del respectivo Consulado español con motivo del retorno a España.

c) Estar empadronada y tener la residencia efectiva en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a la fecha de presentación de la solicitud.

d) Contar con el reconocimiento de la situación de dependencia en cualquiera de sus grados.

e) Facilitar la información y presentar la documentación que le sean requeridas por la Diputación Foral de Gipuzkoa y los respectivos servicios sociales municipales, que resulte pertinente para resolver acerca de la concesión o denegación de la prestación económica de dependencia solicitada.

f) Contar con un informe de idoneidad favorable de los servicios sociales municipales, en aquellos supuestos en los que estos mismos servicios, o el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, consideren necesario contar con un pronunciamiento expreso acerca de la idoneidad de la prestación económica.

g) Baimena ematea dagokien udaleko gizarte zerbitzuei eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuari, fitxategi automatizatuetan sartzen diren datu pertsonal, ekonomiko eta sozialak nahiz osasun arlokoak erabil daitezen, bai beraien egitekoak burutzeko, bai beste helburu batzuetarako, adibidez, estatistikak egiteko edo ikerketa zientifikorako; hori guztia, izaera pertsonaleko datuak babestearen arloan indarrean dagoen araudiak aurreikusitakoa betez.

h) Baimena ematea, dagokien udaleko gizarte zerbitzuei eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuari, eskatzaileak emaniko datuak egiazta ditzaten Gipuzkoako Foru Aldundiaren beste departamentu batzuetako edo beste administrazio publiko batzuetako fitxategietan, eta, era berean, beharrezkoak diren kontsulta guztiak egin ditzaten, prestazioak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen zenbatekoa kalkulatzeko, eta, hori guztia, izaera pertsonaleko datuak babestearen arloan indarrean dagoen araudiak aurreikusitakoa betez.

i) Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomiko bakoitza eskuratzeko, hurrengo 10, 11 eta 12. artikuluetan hurrenez hurren aurreikusten diren baldintza bereziak betetzea.

2. 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 3. artikuluko 1. apartatuko j) letran aipatzen duen eraginkortasun printzipioari jarraikiz, prestazioa eskuratzeko baldintza izango da ordaindu beharreko zenbatekoa, behin foru dekretu honetako III. Kapituluko murrizketak eta kenkariak ezarrita, zero euro baino handiagoa izatea.

*10. artikulua. Familia inguruneko zaintzetarako zein profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintza bereziak.*

1. Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa eskuratzeko, 9. artikuluan ezarritako baldintza orokorrez gain, baldintza berezi hauek bete beharko dira:

a) Profesionala ez den zaintzaile batek mendeko pertsonaren ohiko etxebizitzan ematea mendekotasun egoera horri dagozkion arreta eta zaintzak, kontratu bidezkoa ez den harreman baten esparruan. Horretarako, zaintzaile bakarra izendatu behar da, eta hura izango da mendeko pertsonari behar bezalako arreta eta zaintzak emateko arduraduna.

Aurrekoa gorabehera, baldintza hori betetzen dela ulertuko da, kasu hauetan ere:

— Zaintzaileak behin-behingoz ezin duenean behar bezala zaindu mendeko pertsona, gaixo dagoelako edo etxetik kanpora, dela oporrengatik, ospitalean egoteagatik, lanagatik edo beste arrazoi batzuengatik. Kasu honetan, ulertzen da betetzen dela behar bezalako arreta eta zaintzak ematearen inguruko baldintza; betiere aldi horretan -inola ere ezingo da izan urteko hiru hilabete baino luzeagoa- mendeko pertsona hori behar bezala zaindu behar du profesionala ez den beste zaintzaile batek.

— Era berean, baldintza hori betetzen dela ulertzen da mendeko pertsona behin-behingoz bere etxebizitzatik beste batera aldatzen bada, bai Gipuzkoan bertan bai Lurralde Historikotik kanpo ere, etxeko obrak, oporrak, ospitaleratzea, behin-behingoz etxeko zaintzak falta izatea edo beste arrazoi batzuk direlaeta; betiere, aldi horretan –nola ere ezingo da izan urtean hiru hilabete baino luzeagoa– mendeko pertsona hori behar bezala zaindu behar du ohiko zaintzaileak edo profesionala ez den beste zaintzaile batek.

b) Etxebizitzak baldintza egokiak betetzea bizikidetzaren eta bizigarritasunaren aldetik, behar bezalako zaintzak emateko.

g) Autorizar a los servicios sociales municipales correspondientes y al departamento competente en materia de servicios sociales de Diputación Foral de Gipuzkoa para que los datos de carácter personal, económicos, sanitarios y sociales que se integren en ficheros automatizados, puedan utilizarse para sus funciones propias, así como para otros fines tales como la producción de estadísticas o la investigación científica, todo ello de conformidad con lo previsto por la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

h) Autorizar a los servicios sociales municipales correspondientes y al departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa para que verifiquen los datos aportados por la persona solicitante que se hallen en ficheros de otros departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa o de otras Administraciones Públicas, así como para que realicen cuantas consultas sean necesarias para la comprobación del cumplimiento de los requisitos de acceso y para el cálculo de la cuantía de las prestaciones económicas de dependencia, todo ello de conformidad con lo previsto en la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

i) Cumplir los requisitos específicos de acceso previstos respectivamente para cada una de las prestaciones económicas de dependencia en los artículos 10, 11 y 12 siguientes.

2. En aplicación del principio de eficiencia contemplado en la letra j) del apartado 1 del artículo 3 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, será requisito de acceso a la prestación el que la cuantía resultante a abonar, una vez aplicadas las reducciones, minoraciones y deducciones a que hace referencia el Capítulo III del presente decreto foral, sea superior a cero euros.

*Artículo 10. Requisitos específicos de acceso a la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar y Apoyo a Cuidadores No Profesionales.*

1. Con carácter específico, para acceder a la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar, deberán reunirse, además de los requisitos generales contemplados en el artículo 9, los siguientes:

a) Estar prestándose la atención y cuidados derivados de la situación de dependencia en el domicilio habitual de la persona dependiente, por parte de una persona cuidadora no profesional, en el marco de una relación no contractual, debiendo designarse a una única persona cuidadora que será responsable de la correcta atención y cuidados que se den a la persona dependiente.

No obstante lo anterior, se entenderá que se sigue cumpliendo dicho requisito en los siguientes supuestos:

— En el caso de que la persona cuidadora no pueda, temporalmente, prestar debidamente los cuidados a la persona dependiente por encontrarse enferma o fuera del domicilio por vacaciones, hospitalización, trabajo u otras causas, se entenderá que se cumple con el requisito de estar prestando la atención y cuidados necesarios siempre que durante ese periodo -que en ningún caso podrá exceder de tres meses al año-, la persona dependiente sea debidamente atendida por otra persona cuidadora no profesional.

— Asimismo, también se entenderá cumplido este requisito cuando la persona dependiente se traslade temporalmente de su vivienda, tanto dentro de Gipuzkoa como fuera del territorio histórico, por obras en el domicilio, vacaciones, hospitalización, falta de cuidados en el domicilio temporalmente, u otras causas, siempre que durante ese periodo –que en ningún caso podrá exceder de tres meses al año– la persona dependiente sea debidamente atendida por la persona cuidadora habitual o por otra persona cuidadora no profesional.

b) Presentar la vivienda las condiciones adecuadas de convivencia y habitabilidad para el desarrollo de los cuidados necesarios.

EK\CV GAO-I-2017-08643

c) Mendeko pertsonak baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuari eta dagokien udaleko gizarte zerbitzuei, etxebizitzan beharrezkoak diren esku-hartze teknikoak egin ditzaten, bai hasierakoak bai jarraipena egitekoak. Esku-hartzeen helburua izango da egiaztatzea arreta benetan ematen dela eta mendeko pertsonaren beharretara egokitzen dela.

d) Profesionala ez den zaintzaileak artikulu honetako hurrengo atalean adierazitako baldintzak betetzea.

2. Profesionala ez den zaintzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) 18 urte edo gehiago izatea, zaintzen duen pertsonak I. Graduko mendekotasuna duenean, eta 18tik 84 urte bitartera izatea (biak barne), zaintzen duen pertsonak II. Graduko edo III. Graduko mendekotasuna duenean. Zaintzailea gehieneko adin horretara iristen denean, mendeko pertsonak beste zaintzaile bat har dezake, Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren titular izaten jarraitzeko; bestela, beste prestazio ekonomiko bat edo zerbitzu bat eska dezake.

b) Espainiako Estatuan izatea legezko egoitza. Mendeko pertsona adin txikikoa bada, profesionala ez den zaintzaileak ez du baldintza hori bete beharrik izango.

c) Zaintzen duen mendeko pertsonaren etxebizitza berean bizitzea eta erroldatuta egotea eskaera egiten den egunean.

Pertsona zaintzailea beste familia unitate bateko kide izan eta familia unitate horren bizilekua eta mendeko pertsonarena ezberdinak diren kasuetan, ulertuko da zaintzaileak ez duela betetzen elkarbizitzako baldintza hori.

d) Mendekotasun egoeran dagoen pertsonarekiko ahaidetasun harreman hauetakoren bat (edo baliokidea) izatea:

— Ezkontidea edo izatezko bikotea izatea, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria den 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, Izatezko bikoteak arautzen dituenak, ezarritakoaren arabera;

— Odol, ezkontza edo adopzio bidezko senidea izatea, hirugarren ahaidetasun graduraino;

— Mendeko pertsonaren legezko tutorea izatea;

— mendeko pertsona harreran hartzea familian, pertsona hori adin txikikoa denean; era berean, mendeko pertsonarekin harrera harremana izatea aurrez, pertsona hori adin nagusitasunera iritsi zenean amaitu zena.

Baldintza hori salbuetsi egin daiteke kasu hauetan:

— Egiaztatzen denean harreman pertsonala eta bizikidetzakoa egon dela zaintzailearen eta mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren artean, eskaera eguna baino gutxienez 5 urte lehenagotik.

— Erlijio ordena bateko kideek beren ordena bereko beste kide batzuk zaintzen dituztenean, egoitza esparru bera partekatuz.

e) Behar adinako gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea, bere kabuz modu egokian emateko mendeko pertsonak behar dituen zaintzak eta laguntza. Aurrekoaren ondorioetarako, zaintzailea ezingo da izan mendekotasuna aitortua duen pertsona, baliaezintasun handiko pentsioa edo beste pertsona baten laguntza beharra aitortua duena; era berean, ezingo du izan % 65 eko desgaitasuna edo handiagoa.

Profesionala ez den zaintzaileak gaitasunaren inguruko baldintza hori betetzen ez duenean, mendeko pertsonak beste

c) Autorizar la persona dependiente tanto al departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa como a los servicios sociales municipales correspondientes la realización de las intervenciones técnicas necesarias en el domicilio, tanto iniciales como de seguimiento, orientadas a comprobar que la atención se presta realmente y que es adecuada a las necesidades de la persona dependiente.

d) Reunir la persona cuidadora no profesional los requisitos señalados en el apartado siguiente del presente artículo.

2. La persona cuidadora no profesional deberá reunir los siguientes requisitos:

a) Tener 18 o más años, cuando la persona atendida tenga una dependencia de Grado I y tener entre 18 y 84 años, ambos inclusive, cuando la persona atendida tenga una dependencia de Grado II o de Grado III. Cuando la persona cuidadora alcance este límite máximo de edad, la persona dependiente podrá cambiar de persona cuidadora para seguir siendo titular de la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar, o bien solicitar el acceso a otra prestación económica o a un servicio.

b) Residir legalmente en el Estado Español. En el caso de que la persona dependiente sea una persona menor de edad, la persona cuidadora no profesional quedará exenta del cumplimiento de este requisito.

c) Convivir y estar empadronada en el mismo domicilio que la persona dependiente a la que atiende, en la fecha de presentación de la solicitud.

Se entenderá que no se cumple este requisito de convivencia cuando la persona cuidadora forme parte de otra unidad familiar cuyo domicilio no coincida con el de la persona dependiente.

d) Estar unida/o a la persona con dependencia por alguno de los siguientes vínculos de parentesco (o asimilados al mismo):

— Ser cónyuge o pareja de hecho constituida con arreglo a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las Parejas de Hecho aplicable en la Comunidad Autónoma del País Vasco;

— Ser pariente por consanguinidad, afinidad o adopción hasta el tercer grado de parentesco;

— Ser tutor/a legal de la persona dependiente;

— Ser acogedor/a familiar de la persona dependiente cuando esta última sea menor de edad o haber mantenido un vínculo por acogimiento con la persona dependiente que cesó por el cumplimiento de la mayoría de edad.

La exigencia de este requisito podrá exceptuarse en los siguientes supuestos:

— Cuando se acredite la existencia de un vínculo personal y la convivencia entre la persona cuidadora y la persona en situación de dependencia con una anterioridad mínima de 5 años respecto a la fecha de la solicitud.

— Cuando los cuidados sean prestados por miembros de una Orden religiosa a otras u otros de la misma Orden con la que compartan el mismo ámbito residencial.

e) Tener la capacidad física y psíquica suficiente para desarrollar adecuadamente por sí misma las funciones de cuidado y apoyo que precise la persona dependiente. A efectos de lo anterior, se considerará que la persona cuidadora no podrá ser una persona con reconocimiento de dependencia, una persona que tenga reconocida la pensión de gran invalidez o la necesidad de asistencia de tercera persona, o una persona que tenga reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 65 %.

Cuando la persona cuidadora no profesional no reúna este requisito de capacidad, la persona dependiente podrá cambiar

EK\CV GAO-I-2017-08643

zaintzaile bat har dezake, Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren titular izaten jarraitzeko; bestela, beste prestazio ekonomiko bat edo zerbitzu bat eska dezake.

f) Behar adinako denbora izatea, prestazioaren titularra den mendeko pertsonaren arreta bere gain hartzeko. Aurrekoaren ondorioetarako, profesionala ez den zaintzaileak ezingo dizkie bere zerbitzuak eskaini mendekotasun egoeran dauden bi pertsona baino gehiagori; salbuespena da mendekotasun egoeran dauden pertsona guztiak adin txikikoak izatea eta zaintzailea aita edo ama izatea, bai odol ahaidetasunagatik nahiz adopzioagatik, bai familia harreraren esparruan.

g) Mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren arreta eta zaintzarako beharrezkoak diren eginkizunak burutzeko konpromisoa sinatzea, foru dekretu honen I. eranskinean dagoen eredu normalizatuaren bidez.

*11. artikulua. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintza bereziak.*

1. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eskuratzeko, 9. artikuluan ezarritako baldintza orokorrez gain, artikulu honetan ezarritako baldintza berezi hauek bete beharko dira.

2. Mendeko pertsonak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) 3 urte edo gehiago izatea.

b) Laguntza pertsonala jasotzea hezkuntza edo lan arloko ekintzak egiteko eta/edo eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak eta/edo jarduera instrumentalak egiteko, eta baita ere komunitatean erabat integratuko dela eta parte hartuko duela bermatzeko. Aurrekoa gorabehera, baldintza hori betetzen dela ulertzen da kasu hauetan ere:

— Laguntzaile pertsonalaren oporretan; opor horiek urte naturalean 30 egun izango dira gehienez.

— Laguntzaile pertsonalaren laneko bajan zehar; gehieneko epea, baja hori gertatzen den hilean geratzen diren egunak eta ondorengo bi hilabeteak izango dira.

Aldi horietan, prestazio ekonomikoaren titularrak, nahi badu, beste laguntzaile pertsonal bat kontrata dezake, ohiko bere laguntzaile pertsonalaren ordez.

c) Laguntza pertsonaleko zerbitzua emateko kontratua egiaztatzea, modalitate hauetako edozeinetan:

— Merkataritza kontratu baten bidez. Kontratu hori egingo da mendeko pertsonaren eta laguntza pertsonaleko zerbitzuak ematen dituen eta behar bezala erregistratuta dagoen erakunde baten artean; edo mendeko pertsonaren eta autonomo profesional baten artean.

— Lan kontratu baten bidez. Kontratu hori egingo da mendeko pertsonaren eta laguntzaile pertsonalaren artean; bi alderdien arteko harremana zuzenekoa izan daiteke, edo bitarteko erakunde pribatu batek bideratua.

d) Mendekotasun egoeran dagoen pertsonak baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuari eta dagokien udaleko gizarte zerbitzuei, etxebizitzan beharrezkoak diren esku-hartze teknikoak egin ditzaten, bai hasierakoak bai jarraipena egitekoak. Esku-hartze horien helburua izango da egiaztatzea arreta benetan ematen dela eta mendeko pertsonaren beharretara egokitzen dela.

e) Ez bizitzea egoitza zerbitzu batean, edozein modalitatetan dela ere.

3. Laguntzaile pertsonalen funtzioa betetzen dutenek, berriz, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) 18 urte edo gehiago izatea.

b) Legezko egoitza Espainiako Estatuan edo Frantziako Estatuan edukitzea.

de persona cuidadora para seguir siendo titular de la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar, o bien solicitar el acceso a otra prestación económica o a un servicio.

f) Disponer de tiempo suficiente para asumir la atención a la persona dependiente titular de la prestación. A efectos de lo anterior, la persona cuidadora no profesional no podrá prestar sus servicios a más de dos personas en situación de dependencia, salvo que todas las personas en situación de dependencia a las que atiende sean personas menores de edad y la persona cuidadora sea el padre o la madre, ya sea por consanguinidad o adopción o en el marco de un acogimiento familiar.

g) Suscribir el compromiso de realizar las funciones necesarias para la atención y cuidado de la persona en situación de dependencia, mediante el modelo normalizado contenido en el anexo I del presente decreto foral.

*Artículo 11. Requisitos específicos de acceso a la Prestación Económica de Asistencia Personal.*

1. Con carácter específico, para acceder a la Prestación Económica de Asistencia Personal deberán reunirse, además de los requisitos generales contemplados en el artículo 9, los establecidos en el presente artículo.

2. La persona dependiente deberá reunir los siguientes requisitos:

a) Tener 3 o más años de edad.

b) Recibir asistencia personal para desarrollar actividades en el ámbito educativo o laboral y/o para desarrollar las actividades básicas y/o instrumentales de la vida diaria, así como para garantizar la plena inclusión y participación en la comunidad. No obstante lo anterior, se entenderá que sigue cumpliéndose este requisito en los siguientes casos:

— Durante las vacaciones del o de la asistente personal, hasta un máximo de 30 días en el año natural.

— Durante la baja laboral del o de la asistente personal, considerándose como máximo un periodo que comprenda los días restantes del mes en que se produce dicha baja y los dos meses siguientes.

Durante dichos periodos, la persona titular de la prestación económica podrá, si lo desea, contratar a otro u otra asistente personal que sustituya a su asistente personal habitual.

c) Acreditar la existencia de un contrato para la prestación del servicio de asistencia personal en cualquiera de las siguientes modalidades:

— Mediante un contrato mercantil entre la persona dependiente y una entidad prestadora de servicios de asistencia personal debidamente registrada al efecto, o una persona profesional autónoma.

— Mediante un contrato laboral entre la persona dependiente y el o la asistente personal, independientemente de que la relación entre ambas partes se haya establecido directamente o haya sido facilitada por una entidad privada intermediaria.

d) Autorizar al departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa y a los servicios sociales municipales correspondientes a que realicen las intervenciones técnicas necesarias en el domicilio, tanto iniciales como de seguimiento, orientadas a comprobar que la atención se presta realmente y que es adecuada a las necesidades de la persona dependiente.

e) No residir en un servicio residencial, en cualquier modalidad.

3. La persona o personas que ejerzan de asistentes personales deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Tener 18 o más años.

b) Residir legalmente en el Estado español o en el Estado francés.

EK\CV GAO-I-2017-08643

c) Ez edukitzea prestazio ekonomikoaren titularrarekin honako ahaidetasun harremanik (edo baliokiderik):

— Ezkontidea edo izatezko bikotea, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria den 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, Izatezko bikoteak arautzen dituenak, ezarritakoaren arabera.

— Odol, ezkontza edo adopzio bidezko senidea, hirugarren ahaidetasun graduraino.

— Mendeko pertsonaren legezko tutorea.

— Mendeko pertsona harreran hartzea familian, pertsona hori adin txikikoa denean; era berean, mendeko pertsonarekin harrera harremana izatea aurrez, pertsona hori adin nagusitasunera iritsi zenean amaitu zena.

— Erlijio ordena berekoa izatea eta egoitza esparru bera partekatzea.

d) Bere zerbitzuak kontratu harreman baten esparruan ematea.

e) Indarrean dagoen araudiari jarraiki, Gizarte Segurantzan afiliatu, alta eman eta kotizatzeko baldintzak betetzea.

f) Pertsonei arreta soziosanitarioa ematea etxean lanbide kualifikazioa izatea (2004ko otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretuan ezarritakoa), horretarako titulu eta ziurtagiri hauek kontutan hartuko direlarik:

— Gizarteratzeko goi mailako teknikariaren titulua, 2012ko uztailaren 13ko 1074/2012 Errege Dekretuak ezarria, edo haren baliokidea den Gizarteratzeko goi mailako teknikariaren titulua, 1995eko abenduaren 22ko 2061/1995 Errege Dekretuak ezarria, bakarrik laguntzaile pertsonalaren lanbide kategorian lanean ari zirenentzat akordio hau argitaratu zenean: 2017ko urriaren 19ko Akordioa, Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren 2008ko azaroaren 27ko akordioa aldatzen duena.

— Erizaintzako zaintza osagarrietako teknikariaren titulua, 1995eko apirilaren 7ko 546/1995 Errege Dekretuak ezarria, edo Klinikako Teknikari Laguntzaile, Psikiatriako Teknikari Laguntzaile eta Erizaintzako Teknikari Laguntzaileko titulu baliokideak, 1998ko apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuak ezarriak.

— Mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta egiteko teknikariaren titulua, 2011ko azaroaren 4ko 1593/2011 Errege Dekretuak arautua, edo haren baliokidea den Arreta soziosanitarioko teknikariaren titulua, 2003ko maiatzaren 2ko 496/2003 Errege Dekretuak ezarria.

— Lanbide ziurtagiri hau izatea: Mendeko pertsonei arreta soziosanitarioa ematea erakunde sozialetan, 2008ko abuztuaren 1eko 1379/2008 Errege Dekretuak arautua.

— Lanbide ziurtagiri hauek izatea: Mendeko pertsonei arreta soziosanitarioa ematea etxean (2008ko abuztuaren 1eko 1379/2008 Errege Dekretuak arautua), edo haren baliokidea den Etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea (1997ko martxoaren 7ko 331/1997 Errege Dekretuak arautua).

— Hala badagokio, lanbide arloko ondorio berekin argitaratzen den beste edozein titulu edo ziurtagiri.

Lanbide kualifikazioa izateko baldintza hori eskatuko zaie laguntzaile pertsonal gisa jarduten duten guztiei, edozein dela ere beren funtzioen oinarrian dagoen kontratu esparrua.

Ulertu behar da f) hizki honetan ezarritakoak ez duela eragozten foru dekretu honetako lehen xedapen iragankorrean aurreikusten dena.

4. Laguntza pertsonaleko zerbitzua erakunde batek ematen badu, erakunde hori Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan

c) No mantener con la persona titular de la prestación económica ninguno de los siguientes vínculos de parentesco (o asimilados al mismo):

— Ser cónyuge o pareja de hecho constituida con arreglo a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las Parejas de Hecho aplicable en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

— Ser pariente por consanguinidad, afinidad o adopción hasta el tercer grado de parentesco.

— Ser tutor/a legal de la persona dependiente.

— Ser acogedor familiar de la persona dependiente cuando esta última sea menor de edad o haber mantenido un vínculo por acogimiento con la persona dependiente que cesó por el cumplimiento de la mayoría de edad.

— Pertenecer a la misma Orden religiosa y compartir el mismo ámbito residencial.

d) Prestar sus servicios en el marco de una relación contractual.

e) Cumplir las condiciones de afiliación, alta y cotización a la Seguridad Social que correspondan de conformidad con la normativa vigente.

f) Tener la cualificación profesional de Atención Sociosanitaria a Personas en el Domicilio establecida por el Real Decreto 295/2004, de 20 de febrero, considerándose al efecto los siguientes títulos y certificados:

— Título de Técnico/a Superior en Integración Social, establecido por el Real Decreto 1074/2012, de 13 de julio, o el título equivalente de Técnico Superior en Integración Social establecido en el Real Decreto 2061/1995, de 22 de diciembre, sólo para aquellos profesionales que se encontrasen trabajando en la categoría profesional de asistente personal en el momento de la publicación del Acuerdo del 19 de octubre de 2017, de Modificación del Acuerdo del Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia del 27 de noviembre de 2008.

— Título de Técnico/a en Cuidados Auxiliares de Enfermería, establecido por el Real Decreto 546/1995, de 7 de abril o los títulos equivalentes de Técnico/a Auxiliar Clínica, Técnico/a Auxiliar Psiquiatría y Técnico/a Auxiliar de Enfermería que establece el Real Decreto 777/1998, de 30 de abril.

— Título de Técnico/a de Atención a Personas en Situación de Dependencia, regulado por el Real Decreto 1593/2011, de 4 de noviembre, o el título equivalente de Técnico/a de Atención Sociosanitaria, establecido por el Real Decreto 496/2003, de 2 de mayo.

— Certificado de Profesionalidad de Atención Sociosanitaria a Personas Dependientes en Instituciones Sociales, regulado por el Real Decreto 1379/2008, de 1 de agosto.

— Certificado de Profesionalidad de Atención Sociosanitaria a Personas Dependientes en Domicilio, regulado por el Real Decreto 1379/2008, de 1 de agosto, o el equivalente Certificado de Profesionalidad de la Ocupación de Auxiliar de Ayuda a Domicilio, regulado por el Real Decreto 331/1997, de 7 de marzo.

— En su caso, cualquier otro título o certificado que se publique con los mismos efectos profesionales.

Este requisito de cualificación profesional se exigirá a todas las personas que actúen como asistentes personales, independientemente del tipo de contrato en el marco del cual ejerzan dichas funciones.

Esta letra f) deberá entenderse sin perjuicio de lo previsto en la disposición transitoria primera del presente decreto foral.

4. En caso de que el servicio de asistencia personal lo preste una entidad, la misma deberá estar inscrita en el Regis-

izena emanda egon behar da, 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, 51.1 b) artikuluan ezartzen duenaren arabera 53. artikuluarekin lotuta.

*12. artikulua. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintza bereziak.*

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko, prestazio horri dagokion zerbitzua foru eskumenekoa denean, 9. artikuluan ezarritako baldintza orokorrez gain, artikulu honetan ezarritako baldintza berezi hauek bete beharko dira:

a) Eguneko arreta zerbitzuaren edo egoitza zerbitzuaren esleipen ebazpena izatea; ebazpen horretan titularrari jakinarazten zaio plaza esleitzeko itxaron zerrendan sartzen dela. Eguneko arreta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, gainera, derrigorrezkoa izango da hiru hilabetez egotea itxaron zerrendan.

b) Egiaztatzea, dagokion kontratuaren bidez, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko plaza bat duela Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko baimena duen zentro batean. Salbuespeneko kasuetan, gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuak onar ditzake aipaturiko lurralde horretatik kanpo dauden zentroetan plaza duten pertsonen eskaerak, betiere zentro horrek bere esparru geografikoan eskatzen den funtzionatzeko baimena badu; kasu horietan, prestazioaren iraupena gehienez ere 6 hilabetekoa izango da.

*13. artikulua. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoei loturiko betebeharrak.*

Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen titularrek betebehar hauek onartzen dituzte, prestazioa eskuratzearekin batera:

a) Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa soilik erabili behar dute prestazio horrek duen xedea betetzeko.

b) Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoa eskuratu ondoren eta horren titular diren denbora guztian, prestazioa eskuratzeko baldintzak bete beharko dituzte.

c) Eskatzen zaien informazioa eta dokumentazioa eman behar dute, mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak kudeatzeko beharrezkoa den guztietan. Era berean, egoerari jarraipena egiteko, gizarte zerbitzuekin ezar daitezkeen elkarrizketetara aurkeztu beharko dira.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi beharko dio edozein aldaketa izan bada, bai zuzenean bai dagokien udaleko gizarte zerbitzuen bidez, aldaketa izan den egunetik hilabeteko epean: bai prestazioa aldatzea, etetea edo amaitzea eragin dezakeen edozein aldaketa, bai etxebizitza, profesionala ez den zaintzailea, laguntzaile pertsonala edo zentroa aldatzea ere.

e) Onuradunak NANa eskuratzen badu (14 urteko legezko adina bete duelako edo Espainiako nazionalitatea eskuratu duen atzerritarra delako), NAN hori aurkeztu beharko du, hilabeteko epean, bere udalerriko Gizarte Zerbitzuetan, espedientean sar dezaten. Betebehar bera egongo da, NAN hori eskuratzen duena hauetakoren bat denean: Familia inguruneko zaintzetarako zein profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoaren arloko zaintzailea, Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren esparruan kontrataturiko laguntzaile pertsonala edo familia unitateko kide bat. Era berean, dagokion dokumentazio berria aurkeztu beharko da, onuradunak, zaintzaileak, laguntzaile pertsonalak edo familia unitateko kideren batek egoitza baimena berritzen badu.

f) Hala badagokio, bidegabe jasotako prestazioak edo bidegabeko zenbatekoak itzuli behar dira, foru dekretu honetako VI. Kapituluan ezarritakoaren arabera, bai bidegabe kobratu dena onuradunaren erruz izan denean bai Administrazioaren erruz izan denean.

tro Foral de Servicios Sociales, de conformidad con lo previsto en el artículo 51.1 b) de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en relación con su artículo 53.

*Artículo 12. Requisitos específicos de acceso a la Prestación Económica Vinculada al Servicio.*

Con carácter específico, para acceder a la Prestación Económica Vinculada al Servicio, cuando la misma se vincule a un tipo de servicio que recae en la competencia foral, deberán reunirse, además de los requisitos generales contemplados en el artículo 9, los establecidos en el presente artículo:

a) Contar con una resolución de concesión de servicio de atención diurna o residencial en la que se le comunique que se incorpora a la lista de espera para asignación de plaza. Además, en el caso de la Prestación Económica Vinculada al Servicio de atención diurna, será requisito llevar al menos tres meses en dicha lista de espera.

b) Acreditar, mediante el correspondiente contrato, que dispone de una plaza ajena a la red foral de servicios sociales en un centro debidamente autorizado para la atención a personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Excepcionalmente, el departamento competente en materia de servicios sociales podrá admitir las solicitudes de personas que dispongan de plaza en un centro ubicado fuera de dicho territorio, siempre que el mismo cuente con la debida autorización de funcionamiento exigible en el ámbito geográfico en el que se sitúe, si bien en tales supuestos, la duración de la prestación no podrá superar los 6 meses.

*Artículo 13. Obligaciones asociadas a las prestaciones económicas de dependencia.*

Las personas titulares de las prestaciones económicas de dependencia, adquieren, con la concesión, las siguientes obligaciones:

a) Destinar el importe de la prestación económica exclusivamente al fin para el que fue concedida.

b) Mantener los requisitos de acceso con posterioridad al mismo y durante todo el tiempo en que sean titulares de la prestación económica de dependencia.

c) Facilitar la información y presentar la documentación que les sea requerida, siempre que resulte pertinente para la gestión de las prestaciones económicas de dependencia, así como prestarse a las entrevistas con los servicios sociales que puedan establecerse para el seguimiento de la situación.

d) Comunicar a la Diputación Foral de Gipuzkoa, bien directamente o bien a través de los servicios sociales municipales correspondientes, y en el plazo de un mes desde la fecha en que se produjera, cualquier variación que pudiera dar lugar a la modificación, suspensión o extinción de la prestación, así como cualquier cambio de domicilio, de persona cuidadora no profesional, de asistente personal o de centro.

e) En caso de que, por cumplir la edad legal de 14 años o por tratarse de una persona extranjera que obtiene la nacionalidad española, la persona beneficiaria obtenga el DNI deberá presentarlo en un plazo máximo de un mes en los Servicios Sociales de su municipio para que sea incorporado a su expediente. Igual obligación existirá cuando sea la persona cuidadora de la Prestación Económica de Cuidados en el Entorno Familiar, la asistente personal contratada en el marco de la Prestación Económica de Asistencia Personal o un miembro de la unidad familiar el que obtenga dicho DNI. Deberá presentarse, asimismo, la nueva documentación que corresponda en caso de renovación del permiso de residencia de la persona beneficiaria, de la persona cuidadora, de la asistente personal o de algún miembro de la unidad familiar.

f) Reintegrar, en su caso, el importe de las prestaciones indebidamente percibidas o en cuantía indebida en los términos expuestos en el Capítulo VI del presente decreto foral, tanto si la percepción de dichos cobros indebidos es imputable a la persona beneficiaria como si es imputable a la Administración.

EK\CV GAO-I-2017-08643

g) Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren eta Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan, modu eraginkorrean erraztu behar dira gizarte zerbitzuetako profesionalek etxera egindako bisitak, bai hasierako bisitak bai jarraipenekoak. Bisita horien helburua izango da, hain zuzen ere, egiaztatzea arreta benetan ematen dela eta mendeko pertsonaren beharretara egokitzen dela.

h) Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren kasuan, egiaztatu beharko da, prestazioa onartzen edo zaintzailez aldatzen den ebazpenaren egunetik hasi eta 6 hilabeteko epean, zaintzaileak beharrezkoa den oinarrizko prestakuntza duela mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko, eta hori egiaztatzeko dagokion prestakuntza ziurtagiria aurkeztu beharko da. Prestakuntza hori Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuak emango du, eta foru dekretu honetako II. eranskinean ezarritako ezaugarriak eta edukiak izango ditu. Hala ere, ez da horrelako ziurtagiririk eskatuko zaintzaileak 75 urte edo gehiago dituen kasuetan.

Ulertzen da obligazio hori betetzen dela, baldin eta profesionalak ez diren zaintzaileek egiaztatzen badute, ezarritako epean, foru dekretu honetako 11.3. f) artikuluan laguntzaile pertsonalei eskatzen zaien prestakuntza.

Ulertu behar da h) hizki honetan ezarritakoak ez duela eragozten foru dekretu honetako bigarren xedapen iragankorrean aurreikusten dena.

i) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren eta Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan, urtero eginiko gastua arrazoitu behar da. Horretarako, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, aurreko urtean eginiko benetako gastuaren justifikazioa aurkeztu beharko da, bai udaleko gizarte zerbitzuen bidez bai zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuan.

j) Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomiko bakoitzaren xedeak eta helburuak eragiten dituen betebehar guztiak.

## III. KAPITULUA

## MENDEKOTASUNAREN ARLOKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN ARAUBIDE EKONOMIKOA

*14. artikulua. Gehieneko zenbatekoa ezartzea.*

1. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak mendekotasun graduen arabera zehaztuko dira, mendekotasuna aitortu den data edozein izanik ere, 2013ko abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretuak, Autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituenak, bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera. Mendekotasun graduak 2011ko otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuak, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa onartzen duenak, ezartzen ditu.

2. Aurreko atalean aurreikusten diren gehieneko zenbatekoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren akordio bidez ezarriko dira, prestazio mota bakoitzarentzat.

*15. artikulua. Bakoitzaren diru laguntzaren zenbatekoa zehaztea.*

1. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomiko bakoitzaren zenbatekoa zehazteko, honakoa egingo da:

a) Aurreko artikuluan aipatzen den eta indarrean dagoen gehieneko zenbatekoari koefiziente murriztaile bat ezarriko zaio, kontuan izanik eskatzailearen gaitasun ekonomikoaren eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren arteko proportzioa.

g) En el caso de la Prestación Económica de Cuidados en el Entorno Familiar y de la Prestación Económica de Asistencia Personal, facilitar el acceso efectivo a visitas domiciliarias tanto iniciales como de seguimiento por parte de profesionales de los servicios sociales, orientadas a comprobar que la atención se presta realmente y que es adecuada a las necesidades de la persona dependiente.

h) En el caso de la Prestación Económica de Cuidados en el Entorno Familiar, acreditar, en un plazo máximo de 6 meses a contar desde la fecha de la resolución de concesión de la prestación o de cambio de persona cuidadora, que la misma cuenta con la formación básica necesaria para la atención a personas en situación de dependencia, debiendo acreditarlo mediante la presentación del certificado de formación correspondiente. Dicha formación se impartirá por el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa y se ajustará a las características y contenidos establecidos en el anexo II del presente decreto foral. No obstante, no será necesaria dicha acreditación en los casos en que la persona cuidadora tenga 75 o más años.

Se entenderá cumplida esta obligación en el caso de las personas cuidadoras no profesionales que, en el plazo estipulado, puedan acreditar la formación exigida a las y los asistentes personales en el artículo 11.3. f) del presente decreto foral.

La presente letra h) deberá entenderse sin perjuicio de lo previsto en la disposición transitoria segunda del presente decreto foral.

i) En el caso de la Prestación Económica Vinculada al Servicio y de la Prestación Económica de Asistencia Personal, justificar el gasto realizado anualmente, debiendo presentar al efecto, dentro del primer trimestre de cada año, la justificación del gasto real realizado en el año inmediatamente anterior, bien a través de los servicios sociales municipales o bien directamente ante el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

j) Todas aquellas que se deriven del objeto y finalidad propia de cada tipo de prestación económica de dependencia.

## CAPÍTULO III

## RÉGIMEN ECONÓMICO DE LAS PRESTACIONES ECONÓMICAS DE DEPENDENCIA

*Artículo 14. Fijación de la cuantía máxima.*

1. Las cuantías máximas de las prestaciones económicas de dependencia se determinarán en función de los grados de dependencia establecidos por el Real Decreto 174/2011, de 11 de febrero, por el que se aprueba el Baremo de Valoración de la Situación de Dependencia, y ello con independencia de la fecha en que se haya producido su reconocimiento, en virtud de lo previsto en la disposición adicional segunda del Real Decreto 1051/2013, de 27 de diciembre, por el que se regulan las Prestaciones del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia.

2. Las cuantías máximas previstas en el apartado anterior serán fijadas mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa para cada tipo de prestación.

*Artículo 15. Determinación de la cuantía individualizada.*

1. Para determinar la cuantía individualizada de las prestaciones económicas de dependencia, se procederá del siguiente modo:

a) A la cuantía máxima vigente referida en el artículo anterior, se le aplicará un coeficiente reductor atendiendo a la proporción entre la capacidad económica de la persona solicitante, calculada de acuerdo con lo previsto en el artículo 19 del pre-

EK\CV GAO-I-2017-08643

Lehena foru dekretu honetako 19. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatzen da; bigarrena, berriz, kalkulu horretarako kontuan hartzen den Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitorpenaren urte berari dagokio. Horretarako, taula hau aplikatuko da:

sente decreto foral, y el Salario Mínimo Interprofesional correspondiente al mismo año de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas tomada en consideración para dicho cálculo, y ello de acuerdo con la siguiente tabla:

| *Eskatzailearen gaitasun ekonomikoa*<br>*Capacidad económica de la persona solicitante* | *Prestazio ekonomikoaren gehieneko zenbatekoaren portzentajea*<br>*Porcentaje de la Cuantía Máxima de la Prestación Económica* |
|---|---|
| LGSren % 400 baino handiagoa / Superior al 400 % SMI | % 70 |
| LGSren % 300,01 eta % 400 artean / De 300,01 % al 400 % SMI | % 80 |
| LGSren % 250,01 eta % 300 artean / De 250,01 % al 300 % SMI | % 90 |
| LGSren % 250 edo txikiagoa / Inferior o igual al 250 % SMI | % 100 |

b) Aurreko a) hizkian aurreikusitakoaren arabera ateratzen den zenbatekoari ezarriko zaizkio, hala badagozkio, foru dekretu honen 16. eta 17. artikuluetan hurrenez hurren arauturiko murrizketak eta kenkariak.

2. Artikulu honen 1. atalean aurreikusirikoaren arabera zehazten den diru laguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu foru dekretu honen 18. artikuluan ezarririko gehieneko zenbatekoa.

*16. artikulua. Murrizketak, zerbitzuak bateratzeagatik.*

1. Aurreko artikuluaren 1 a) atalean aurreikusirikoaren arabera zehazten den mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen zenbatekoari murrizketa hauek ezarriko zaizkio, prestazio horiek zerbitzu batekin bateratzen direnean:

a) Etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin bateratzen direnean, prestazio ekonomikoaren zenbatekoa % 20 murriztuko da.

b) Eguneko arreta zentro batekin edo arreta zentro okupazional batekin bateratzen direnean, prestazio ekonomikoaren zenbatekoa % 50 murriztuko da.

c) Etxez etxeko laguntza zerbitzu batekin eta gainera eguneko arreta zentro batekin edo arreta zentro okupazional batekin bateratzen direnean, prestazio ekonomikoaren zenbatekoa % 60 murriztuko da.

2. Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa edo Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa bateratzen direnean Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoarekin, eguneko arreta zentro batera edo arreta zentro okupazional batera sartzeko (foru dekretu honen 6.2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera), prestazio haiei ezarriko zaie artikulu honen 1 b) edo 1 c) atalean ezarritako murrizketa, dagokionaren arabera.

*17. artikulua. Kenkariak, antzeko izaera eta xedea duten prestazioak jasotzeagatik.*

1. Aurreko artikuluetan aurreikusitakoaren arabera ateratzen den zenbatekoari kendu egingo zaizkie foru dekretu honek arautzen ez dituen eta antzeko izaera eta xedea duten prestazioei dagozkien zenbatekoak. Prestazio horiek gizarte babeseko araubide publikoetan ezarrita daude. Bereziki, foru dekretu honen 6.3 artikuluan aipaturiko mota horretako prestazioak eta laguntzak kenduko dira.

2. Era berean, baldin eta onuraduna familia harreran eta arduraldi intentsiboan dagoen adin txikikoa bada, harrera familiak arduraldi intentsiboko harreragatik jasotzen duen laguntzaren zenbatekoa kenduko da, arduraldi intentsibokoa ez den familia harrerari dagokion laguntzaren zenbatekoa gainditzen duen neurrian.

b) A la cuantía resultante de lo previsto en la letra a) se aplicarán, en su caso, las minoraciones y deducciones reguladas respectivamente en los artículos 16 y 17 del presente decreto foral.

2. La cuantía individualizada determinada de acuerdo con lo previsto en el apartado 1 del presente artículo quedará sujeta al límite de cuantía máxima regulado en el artículo 18 del presente decreto foral.

*Artículo 16. Minoraciones por compatibilizar servicios.*

1. A la cuantía de las prestaciones económicas de dependencia, determinada en base a lo previsto en el apartado 1 a) del artículo anterior, cuando las mismas se compatibilicen con un servicio, se aplicarán las siguientes minoraciones:

a) Cuando se compatibilicen con el servicio de ayuda a domicilio, la cuantía de la prestación económica sufrirá una minoración del 20 %.

b) Cuando se compatibilicen con un centro de atención diurna o con un centro de atención ocupacional, la cuantía de la prestación económica sufrirá una minoración del 50 %.

c) Cuando se compatibilicen tanto con un servicio de ayuda a domicilio como con un centro de atención diurna u ocupacional, la cuantía de la prestación económica sufrirá una minoración del 60 %.

2. Cuando la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar o la Prestación Económica de Asistencia Personal se compatibilice, en los términos previstos en el artículo 6.2. del presente decreto foral con la Prestación Económica Vinculada al Servicio para el acceso a un centro de atención de día o de atención ocupacional, se aplicará a aquéllas la minoración prevista en el apartado 1 b) o 1 c) del presente artículo, según corresponda.

*Artículo 17. Deducciones por percepción de prestaciones de análoga naturaleza y finalidad.*

1. A la cuantía resultante de lo previsto en los artículos anteriores, se le deducirá la cuantía correspondiente a cualquier otra prestación distinta a las reguladas en el presente decreto foral de análoga naturaleza y finalidad, establecida en los regímenes públicos de protección social. En particular, se deducirán las prestaciones y ayudas de este tipo referidas en el artículo 6.3 del presente decreto foral.

2. Asimismo, cuando la persona beneficiaria sea un o una menor de edad en acogimiento familiar de dedicación intensiva, se deducirá el importe de la ayuda por acogimiento familiar intensivo que perciba la familia de acogida, en cuanto supere el importe de la ayuda que correspondiese en un acogimiento familiar no intensivo.

EK\CV GAO-I-2017-08643

*18. artikulua. Zenbatekoaren mugak, zerbitzuaren benetako kostuaren arabera.*

1. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan, haren zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu kontratatuko laguntzaren benetako kostua. Ondorio horiei begira, ulertzen da benetako kostua dela:

a) Laguntzaile pertsonalari ordaintzen zaizkion nominak, eta Gizarte Segurantzako kotizazioak;

b) Ordaindu diren fakturak, zerbitzua merkataritza kontratu bidez ematen bada.

Laguntza pertsonala bitarteko erakunde pribatu baten bidez kontratatzen bada, erakunde horrek zerbitzua bere bitartekoekin eman gabe, lan harremana mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren eta laguntzaile pertsonalaren artekoa izango da soilik, eta, orduan, erakunde pribatuak jasotzen duen komisioa ez da kontuan hartuko benetan ematen den zerbitzuaren kostua kalkulatzeko garaian.

Laguntza pertsonaleko zerbitzua laguntzaile pertsonal edo enpresa batek baino gehiagok ematen badute, benetako kostua kalkulatzeko laguntzaile edo enpresa guztien kostuak batu beharko dira. Era berean, 11.2 b) artikuluan aurreikusiriko kasuetan (ohiko laguntzaile pertsonala behin-behingoz ordezkatzea, oporretan edo laneko bajan dagoelako), kontuan izango da bai ohiko laguntzaile pertsonalari dagokion benetako kostua bai hura ordezkatzen duen laguntzaile pertsonalari edo enpresari dagokiona.

2. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, aurreko artikuluetan aurreikusitakoaren arabera zehazten den prestazio ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu kontratatuko plazaren benetako kostua; ondorio horiei begira, ulertzen da benetako kostua osatzen dutela zerbitzu horren truke ordaintzen diren fakturek.

*19. artikulua. Gaitasun ekonomikoa zehaztea.*

1. 15.1 artikuluak aipatzen duen gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko, bizikidetza unitatearen gaitasun ekonomikoa unitate horretako kide kopuruarekin zatitu behar da. Ondorio horiei begira, kontuan izan behar da:

a) Adin nagusikoen kasuan, bizikidetza unitatea osatzen dute pertsona horiek beraiek eta:

— Ezkontideak edo izatezko bikoteak, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria den 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, Izatezko bikoteak arautzen dituenak, ezarritakoaren arabera;

— Etxebizitzan bizi diren et a bertan erroldatuta dauden 30 urtetik beherako seme-alabek, beste familia unitate bateko kide diren kasuetan izan ezik;

— Etxebizitzan bizi diren eta bertan erroldatuta dauden 30 urte edo gehiagoko seme-alabek, epaiketa bidez ezgaituta daudenean edo % 65 eko edo gehiagoko desgaitasuna aitortua dutenean, beste familia unitate bateko kide diren kasuetan izan ezik.

Hizki honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ulertzen da bizikidetza dagoela ezkontideen edo izatezko bikoteen artean, baldin eta ez badago, hurrenez hurren, banantze epairik edo izatezko bikotearen desegite ziurtagiririk.

b) Adin txikikoen kasuan, bizikidetza unitatea osatzen dute pertsona horiek beraiek eta:

— Adin txikikoaren zaintza eta babespea duen gurasoak edo gurasoek, familia harrera egiten duen pertsonak, izatezko zaintzaileak edo tutoreak;

— Etxebizitzan bizi diren eta bertan erroldatuta dauden 30 urtetik beherako anai-arrebek, beste familia unitate bateko kide diren kasuetan izan ezik;

— Etxebizitzan bizi diren eta bertan erroldatuta dauden 30 urte edo gehiagoko anai-arrebek, epaiketa bidez ezgaituta dau-

*Artículo 18. Límites a la cuantía en función del coste real del servicio.*

1. En el caso de la Prestación Económica de Asistencia Personal, su cuantía en ningún caso será superior al coste real de la asistencia contratada. A tales efectos, se entenderá por coste real:

a) Las nóminas abonadas al o a la asistente personal, así como las cotizaciones a la Seguridad Social;

b) Las facturas abonadas, si el servicio se presta mediante contrato mercantil.

En caso de que la contratación de la asistencia personal se realice a través de una entidad privada intermediaria que no preste el servicio con sus propios medios, de modo que la relación laboral vincule exclusivamente a la persona en situación de dependencia y al o a la asistente personal, la comisión percibida por la entidad privada no se tendrá en cuenta a la hora de valorar el coste del servicio efectivamente prestado.

Cuando el servicio de asistencia personal se esté prestando por más de un/a asistente personal, o empresa, el coste real se calculará sumando los costes de todos/as los/las asistentes o empresas. Asimismo, en los supuestos previstos en el artículo 11.2 b) de sustitución temporal del o de la asistente personal habitual, por vacaciones o por baja laboral, se tendrá en cuenta el coste real correspondiente tanto al o la asistente personal habitual como al o a la asistente personal, o empresa, que le sustituye.

2. En el caso de la Prestación Económica Vinculada al Servicio, la cuantía de la prestación económica que se determine en base a lo previsto en los artículos anteriores en ningún caso será superior al coste real de la plaza contratada, entendiéndose por coste real, a tales efectos, las facturas abonadas por dicho servicio.

*Artículo 19. Determinación de la capacidad económica.*

1. La capacidad económica a que se refiere el artículo 15.1 será el resultado de dividir la capacidad económica de la unidad de convivencia entre el número de sus miembros, considerándose, a tales efectos, que:

a) En el caso de personas mayores de edad, la unidad de convivencia es la integrada por ellas mismas y:

— EL cónyuge o pareja de hecho constituida conforme a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las Parejas de Hecho aplicable en la Comunidad Autónoma del País Vasco;

— Los/las hijos/as menores de 30 años que convivan en el domicilio y estén empadronados/as en el mismo, salvo que formen parte de otra unidad familiar;

— Los/las hijos/as de 30 o más años cuando estén incapacitados/as judicialmente o tengan reconocida una discapacidad igual o superior al 65 %, que convivan en el domicilio y estén empadronados/as en el mismo, salvo que formen parte de otra unidad familiar.

A efectos de lo previsto en esta letra, se entenderá que existe convivencia entre cónyuges o parejas de hecho mientras no haya, respectivamente, sentencia de separación o certificado de disolución de la pareja de hecho.

b) En el caso de personas menores de edad, la unidad de convivencia estará conformada por ellas mismas y:

— El/la o los progenitores que ostenten la guarda y custodia de la persona menor de edad, el/la acogedor/a familiar, el/la guardador/a de hecho o el tutor/a;

— Los hermanos y hermanas menores de 30 años que convivan en el domicilio y estén empadronados/as en el mismo, salvo que formen parte de otra unidad familiar;

— Los hermanos y hermanas de 30 o más años cuando estén incapacitados/as judicialmente o tengan reconocida una

EK\CV GAO-I-2017-08643

denean edo % 65 eko edo gehiagoko desgaitasuna aitortua dutenean, beste familia unitate bateko kide diren kasuetan izan ezik.

2. Bizikidetza unitatearen gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira bizikidetza unitateak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) aitorturiko zerga oinarriak guztira; PFEZ hori azken ekitaldiari dagokiona izango da, ogasun eta finantza arloko eskumena duen departamentuko fitxategian dagoen aurkezpen egutegiaren arabera. Aurrekoaren ondorioetarako, PFEZren aitorpena aurkezten ez bada, irizpide hauek ezarriko dira:

a) Titularrak edo bizikidetza unitateko beste kideren batek PFEZren aitorpenik aurkeztu ez badu hori aurkeztetik salbuetsita dagoelako, ez da pertsona horri dagokion diru sarrerarik kontuan hartuko.

b) Titularrak edo bizikidetza unitateko beste kideren batek aitorpenik aurkeztu ez badu, horretarako obligazioa eduki arren, kalkulatuko da titularraren gaitasun ekonomikoa Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 400 baino handiagoa dela.

## IV. KAPITULUA

## MENDEKOTASUNAREN ARLOKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK AITORTZEA

*20. artikulua. Eskaera eta dokumentazioa.*

1. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen eskaerak urteko edozein unetan aurkeztu ahal izango dira.

2. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen eskaera aurkeztuko da mendeko pertsona erroldatuta dagoen udalerriko gizarte zerbitzuetan. Eskaera hori dagokion bezala sinatu behar du eskatzaileak, edo, hala badagokio, foru dekretu honetako 8.2 artikuluak aipatzen duen ordezkariak. Horretarako onartzen den eredu normalizatua bete beharko da. Eredu hori eskuragarri egongo da Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan eta lurralde historiko horretako udaleko gizarte zerbitzu guztietan.

3. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko da prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintza orokorrak eta bereziak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa; dokumentazio hori aurreko atalean aipaturiko eskaera eredu normalizatuan adieraziko da.

*21. artikulua. Espedientearen instrukzioa.*

1. Dagokien udaleko gizarte zerbitzuek egiaztatuko dute ea betetzen diren mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoaren titular izateko baldintzak, eta, egoki irizten badute, txostena egingo dute, prestazio hori mendeko pertsonaren beharrak betetzeko egokia den ala ez adieraziz.

Prozeduraren fase honetan, eta baita beste edozein fasetan ere, espedientea ebazteko beharrezkoa edo egokia izan daitekeen informazio eta dokumentu osagarri oro eska diezaiokete eskatzaileari udaleko gizarte zerbitzuak nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuak. Informazio eta dokumentu horiek 10 egun baliodunko epean aurkeztu beharko dira.

2. Artikulu honetako 1. atalean aipaturiko egiaztapena egin ondoren, udaleko gizarte zerbitzuek bide telematiko bidez bidaliko dute espediente osoa Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentura.

3. Udaleko gizarte zerbitzuek bidaliriko espedientea aztertu ondoren, gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen depar-

discapacidad igual o superior al 65 %, que convivan en el domicilio y estén empadronados en el mismo, salvo que formen parte de otra unidad familiar.

2. A efectos del cálculo de la capacidad económica de la unidad de convivencia, se considerarán las bases imponibles totales declaradas por la unidad de convivencia en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) correspondiente al último ejercicio según calendario de presentación del que haya constancia en el fichero del departamento competente en materia de hacienda y finanzas. A efectos de lo anterior, en los casos de no presentación de declaración del IRPF se aplicarán los siguientes criterios:

a) Si la persona titular o algún otro miembro de la unidad de convivencia no hubiera presentado declaración de IRPF por estar exenta de presentación, no se computará ingreso alguno por dicha persona.

b) Si la persona titular o algún otro miembro de la unidad de convivencia no hubiera presentado declaración estando obligada a ello, se considerará que la capacidad económica de la persona titular es superior al 400 % del Salario Mínimo Interprofesional.

## CAPÍTULO IV

## RECONOCIMIENTO DE LAS PRESTACIONES ECONÓMICAS DE DEPENDENCIA

*Artículo 20. Solicitud y documentación.*

1. Las solicitudes de las prestaciones económicas de dependencia podrán presentarse en cualquier momento del año.

2. La solicitud de las prestaciones económicas de dependencia se presentará en los servicios sociales del municipio en el que se encuentre empadronada la persona dependiente. Dicha solicitud deberá ir debidamente firmada por la persona solicitante o, en su caso, por la persona representante referida en el artículo 8.2 del presente decreto foral. Deberá cumplimentarse en el modelo normalizado que se apruebe al efecto, que estará disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en todos los servicios sociales municipales de dicho territorio histórico.

3. La solicitud deberá ir acompañada de la documentación que acredite el cumplimiento de los requisitos generales y específicos exigidos para el acceso a la prestación económica de dependencia solicitada; dicha documentación será la indicada en el modelo normalizado de solicitud referido en el apartado anterior.

*Artículo 21. Instrucción del expediente.*

1. Los servicios sociales municipales correspondientes verificarán el cumplimiento de los requisitos exigidos para ser titular de la prestación económica de dependencia y, de considerarlo oportuno, emitirán informe indicando su idoneidad o no idoneidad para responder a las necesidades de la persona dependiente.

En ésta y en cualquier otra fase del procedimiento, tanto los servicios sociales municipales como el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrán requerir a la persona solicitante que aporte, en el plazo de 10 días hábiles, cuanta información y documentos complementarios puedan ser necesarios y pertinentes para resolver el expediente.

2. Realizada la verificación referida en el apartado 1 del presente artículo, los servicios sociales municipales remitirán, telemáticamente, todo el expediente al departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. Analizado el expediente remitido por los servicios sociales municipales, los servicios técnicos del departamento com-


EK\CV GAO-I-2017-08643

tamentuko zerbitzu teknikoek ebazpen proposamena duen irizpena emango dute, eta irizpen hori bidaliko zaio espedientea ebazteko eskumena duen zuzendari nagusiari.

*22. artikulua. Erabakia.*

1. Zerbitzu teknikoen irizpena jaso ondoren, zuzendari nagusiak dagokion erabakia emango du, eskaturiko mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoa emanez edo ukatuz.

2. Erabakia hartzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkeztu den unetik kontatzen hasita; ondorio horiei begira, ez da kontatuko eskatzaileari dagozkion arrazoiengatik espedientea geratuta egon den aldia. Ebazpena jakinarazi gabe gehiegizko epe hori igarotzeak interesduna legitimatzen du prestazio eskera administrazioaren isiltasunez ezetsia izan dela ulertzeko.

3. Erabaki horren kontra dagozkion errekurtsoak aurkez daitezke, foru dekretu honen 39. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

*23. artikulua. Sortzapena.*

1. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoa eskatzen den egunean prestazioa eskuratzeko baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen bada, eskaera horren aurkezpen data ondorengo hileko lehenengo egunetik aurrera sortuko da prestazio ekonomiko berria.

2. Prestazio ekonomikoa aurkeztu den egunean ezin badira egiaztatu prestazio hori eskuratzeko baldintza guztiak eta bakoitza, baldintza horiek bete direla egiaztatzen den egunaren ondorengo hileko lehenengo egunetik aurrera sortuko da prestazio hori.

3. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomiko baten titularrak AMASeko beste bi prestazio ekonomikoetako bat eskatuko balu, prestazio hori izateko eskubidea duelako, eta, eskaera aurkeztuko balitz aurreko prestazioa jasotzeko baldintzaren bat ez bete eta ondorengo hilean, prestazioaren jarraipena bermatzeko helburuarekin, eskaera egin den hilabeteko lehenengo egunean sortuko da prestazio berria, betiere, prestazio berria eskuratzeko baldintzak hilabete horretako lehenengo egunetik betetzen badira.

*24. artikulua. Ordainketa.*

1. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen ordainketa hilabete amaieran egingo da, urtean hamabi hilabetetan. Onuradunak bere titulartasuneko kontu bat eman behar du, hara egiteko bankuko transferentzia.

2. Salbuespenez, titularra adin txikoa bada, Foru Aldundiak prestazioa pertsona hauei ordaintzea onar dezake: adin txikikoaren zaintza eta babespea duen gurasoari edo gurasoei, familia harrera egiten duen pertsonari, izatezko zaintzaileari edo tutoreari.

*25. artikulua. Iraupena.*

1. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen aitorpenak bere horretan iraungo du, baldintza hauek betetzen diren bitartean:

a) Prestazioa emateko arrazoiek dirauten bitartean.

b) Prestazioa eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen diren bitartean.

c) Prestazioa emateak eragiten dituen obligazioak betetzen diren bitartean.

d) Foru dekretu honen 33. artikuluak arauturiko eskubidea amaitzeko arrazoiren bat gertatzen ez den bitartean.

2. Egoitza zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, eskubideari eusteko irizpide hauek ere bete beharko dira:

petente en materia de servicios sociales emitirán un dictamen con propuesta de resolución, dirigido al director/a general competente para la resolución del expediente.

*Artículo 22. Resolución.*

1. Recibido el dictamen de los servicios técnicos, el/la director/a general competente dictará la oportuna resolución concediendo o denegando la prestación económica de dependencia solicitada.

2. El plazo máximo para resolver será de tres meses a contar desde la presentación de la solicitud, no computándose a estos efectos el período de tiempo durante el cual el expediente se encuentre paralizado por causas imputables a la persona solicitante. El vencimiento de dicho plazo máximo sin haberse notificado la resolución legitima a las personas interesadas para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de la prestación.

3. Contra esta resolución cabe presentar los recursos que correspondan según lo previsto en el artículo 39 del presente decreto foral.

*Artículo 23. Devengo.*

1. En los casos en que a la fecha de solicitud de la prestación económica de dependencia, se acredite el cumplimiento de todos los requisitos de acceso, la nueva prestación económica se devengará a partir del primer día del mes siguiente al de la fecha de presentación de la citada solicitud.

2. En los casos en que a la fecha de solicitud de la prestación económica no sea posible acreditar todos y cada uno de los requisitos para acceder a la misma, ésta se devengará a partir del primer día del mes siguiente al de la fecha en que se acredite el cumplimiento de dichos requisitos.

3. Si una persona titular de una prestación económica de dependencia solicitase alguna de las otras dos prestaciones económicas del SAAD por tener derecho a ella, y la solicitud se presentase el mes siguiente al de incumplimiento de algún requisito de la prestación anterior, con el fin de garantizar la continuidad en el cobro de la prestación, la nueva prestación se devengará el primer día del mes de la solicitud, siempre que se reúnan las condiciones de acceso a la nueva prestación desde el día 1 de dicho mes.

*Artículo 24. Abono.*

1. El abono de las prestaciones económicas de dependencia se realizará a mes vencido en doce mensualidades anuales, mediante transferencia bancaria a la cuenta designada por la persona beneficiaria entre aquéllas de las que sea titular.

2. Excepcionalmente, en el caso de que la persona titular sea menor de edad, la Diputación Foral podrá acordar el pago de la prestación a las siguientes personas: el/la o los progenitores que ostenten la guarda y custodia de la persona menor de edad, el/la acogedor/a familiar, el/la guardador/a de hecho o el tutor/a.

*Artículo 25. Duración.*

1. El reconocimiento de las prestaciones económicas de dependencia se mantendrá mientras se den las siguientes circunstancias:

a) Subsistan las causas que motivaron su concesión.

b) Se mantengan los requisitos exigidos para el acceso.

c) Se cumplan las obligaciones derivadas de su concesión.

d) No concurra ninguna de las causas de extinción reguladas en el artículo 33 del presente decreto foral.

2. En el caso específico de la Prestación Económica Vinculada al Servicio residencial, la duración del derecho quedará sujeta además a los siguientes criterios:

EK\CV GAO-I-2017-08643

a) Prestazio ekonomikoa indarrean egongo da, titularra egoitza zerbitzuari lotutako itxaron zerrendan dagoen bitartean.

b) Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, jada egoitza zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten titularrak diren eta itxaron zerrendan baja ematen duten pertsonek (gizarte zerbitzuen foru sareko plaza bat ez onartzeagatik), jarrai dezakete prestazio ekonomiko horren titular izaten, betiere hura eskuratzeko gainerako baldintzak betetzen jarraitzen badute eta itxaron zerrendan beste pertsona batzuk badaude.

*26. artikulua. Uztea eta uko egitea.*

1. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak eskuratzeko prozeduraren edozein fasetan, eta erabakia eman baino lehen, eskatzaileak berariaz uko egin diezaioke eskariari.

Era berean, foru dekretu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ulertzen da eskatzaileak prozedurari amaiera ematen diola eskariari berariaz uko egingo balio bezala, kasu hauetan: ez badu aurkezten, epe barruan, mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoa kudeatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo administrazio espedientea bideratzea eragozten badu, prestazioa onartzeko erabakiaren data baino lehen.

2. Mendekotasunaren arloko edozein prestazio ekonomikoren titularrak berariaz uko egin diezaioke jada eman den prestazioari.

3. Artikulu honetan aurreikusten den berariazko uztea edo uko egitea idatziz egin beharko da, eta dagokien udaleko gizarte zerbitzuetan edo zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuan aurkeztu.

4. Behin uztea edo uko egitea gauzatu ondoren, eskaera artxibatu egingo da eta espedienteari amaiera emango zaio. Aurretik, horren inguruko erabakia emango du Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuan prestazio ekonomikoak kudeatzeko eskumena duen zuzendari nagusiak.

## V. KAPITULUA

## MENDEKOTASUNAREN ARLOKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN JARRAIPENA, BERRIKUSPENA, ALDAKETA, ETENA ETA AMAIERA

*27. artikulua. Etxeko zaintzei jarraipena egin eta laguntza ematea.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak udalen bitartez egingo ditu Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren eta Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren titularrek jasotako zainketen kalitatearen aldian aldiko jarraipenak, betiere udalen ordezkaritzarekin nahikoa izango den finantzaketa aurretik adostuta. Jarraipen horren helburua izango da bermatzea denboran barrena arreta hori behar adinako intentsitatearekin eta kalitatearekin ematen dela, zaintzaileek beren eginkizuna baldintza egokietan betetzen dutela eta inguruneak eta testuinguruak behar adinako segurtasuna eskaintzen dutela.

2. Foru dekretu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ulertzen da izaera teknikoa duen jarduera bat dela jarraipena. Jarraipenaren helburua izango da egiaztatzea arretak, bizikidetzak eta etxebizitzaren bizigarritasunak baldintza egokietan jarraitzen dutela; zaintzen kalitatea bermatzea, eta etorkizunean izan daitekeen arretarik eza prebenitzea.

Jarraipenaren esparruan, denborarekin mendekotasun egoeretan gertatzen diren aldaketak zehaztuko dira, eta informazioa, orientabidea eta aholkularitza eskainiko zaizkie mendekotasun egoeran dagoen pertsonari eta zaintzaileari. Disfuntzioak edo oreka falta antzemanez gero, prestazioaren inguruko planteamendu berri bat egingo da eta/edo laguntza osagarriak edo ordezkoak emateko aukerak aztertu.

a) La prestación económica seguirá vigente mientras esté en la lista de espera correspondiente al servicio residencial.

b) Sin perjuicio de lo anterior, las personas que siendo ya titulares de una Prestación Económica Vinculada al Servicio residencial causen baja en la lista de espera por no haber aceptado una plaza de la red foral de servicios sociales, podrán, siempre que sigan cumpliendo los otros requisitos de acceso a la misma, seguir siendo titulares de dicha prestación económica, en tanto haya otras personas en la lista de espera.

*Artículo 26. Desistimiento y renuncia.*

1. En cualquier fase del procedimiento de acceso a las prestaciones económicas de dependencia, y antes de dictarse resolución, la persona solicitante podrá desistir expresamente de su solicitud.

Asimismo, a los efectos de lo previsto en el presente decreto foral, se entenderá que la no aportación en plazo, por la persona solicitante, de la documentación requerida para la gestión de la prestación económica de dependencia o el impedimento por parte de la misma para dar curso al expediente administrativo con anterioridad a la fecha de resolución por la que se le concede, pone fin al procedimiento en los mismos términos que un desistimiento expreso.

2. La persona titular de cualquiera de las prestaciones económicas de dependencia podrá renunciar a la prestación ya concedida.

3. El desistimiento expreso o la renuncia previstos en el presente artículo se formularán por escrito entregándose en los servicios sociales municipales que correspondan o directamente en el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

4. Formalizado el desistimiento o la renuncia, se archivará la solicitud y se pondrá fin al expediente, previa resolución en ese sentido del/de la director/a general competente para la gestión de las prestaciones económicas en el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

## CAPÍTULO V

## SEGUIMIENTO, REVISIÓN, MODIFICACIÓN, SUSPENSIÓN Y EXTINCIÓN DE LAS PRESTACIONES ECONÓMICAS DE DEPENDENCIA

*Artículo 27. Seguimiento y apoyo a los cuidados en el domicilio.*

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa realizará, a través de los ayuntamientos, previa financiación suficiente acordada con la representación de los municipios, el seguimiento periódico de la calidad de los cuidados recibidos por las personas titulares de la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar y de la Prestación Económica de Asistencia Personal, con el objetivo de garantizar que, a lo largo del tiempo, la atención se presta con la intensidad y la calidad suficientes, que las personas cuidadoras ejercen su rol en condiciones adecuadas y que el entorno y el contexto ofrecen la suficiente seguridad.

2. A efectos de lo previsto en el presente decreto foral, se entiende por seguimiento una actividad de carácter técnico que tiene por objeto comprobar que persisten las condiciones adecuadas de atención, de convivencia y de habitabilidad de la vivienda, garantizar la calidad de los cuidados y prevenir posibles situaciones futuras de desatención.

En el marco del seguimiento se identificarán las variaciones y cambios que con el paso del tiempo se producen en las situaciones de dependencia y se proporcionará información, orientación y asesoramiento a la persona en situación de dependencia y a la persona cuidadora. En su caso, cuando se identifiquen disfunciones o desajustes, se realizará un replanteamiento de la prestación y/o un análisis de alternativas para la provisión de apoyos complementarios o alternativos.

EK\CV GAO-I-2017-08643

Era berean, jarraipena egiteko unean, arreta berezia jarriko da zaintzaileen eta mendekotasuna duten pertsonen artean eman daitezkeen indarkeria matxistako egoerak identifikatzeko.

3. Jarraipenaren periodikotasuna pertsona edo familia erabiltzaileen egoerari eta bilakaerari egokituko zaie. Orokorrean, udaleko gizarte zerbitzuen jarraipenak bi alderdi hauek hartu beharko lituzke kontutan: bata, aldizkako bisita egitea mendeko pertsonaren etxera, eta, bestea, etxera egindako bi bisiten artean bi urte baino gehiago ez igarotzea.

Modu berezian, jarraipen bisita horren ordez elkarrizketa pertsonal bat egin daiteke gizarte zerbitzuen bulegoetan, edo telefono bidezko elkarrizketa bat, mendeko pertsona hori Etxeko Laguntza zerbitzuaren, Eguneko Zentroaren edo Zentro Okupazionalaren erabiltzailea denean.

4. Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren eta Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren onuradunei edo eskatzaile berriei jakinarazi behar zaie prestazio ekonomikoa jasotzeak jarraipen eta laguntzaren arloko funtzio hau onartzea dakarrela, foru dekretu honen 10.1 c), 11.2 d) eta 13 g) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

5. Jarraipeneko jarduera bakoitza onuradunaren espedientean erregistratu beharko da, eta haren emaitzarekin egoeraren egokitasuna baloratuko da: handia, ertaina edo txikia.

*28. artikulua. Berrikustea.*

1. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak ofizioz berrikusi ahal izango dira edozein unetan.

2. Era berean, onuradunak eskatuta ere berrikusi ahal izango dira, betiere prestazioa emateko baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada edo zenbatekoa zehazteari eragin diezaiokeen aldaketaren bat gertatzen bada.

3. 1. eta 2. ataletan aipatzen diren berrikusketetan, mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen titularrei eska dakieke aurkez dezatela dagokien baldintzak eta obligazioak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzen duen dokumentazioa.

4. Prestazio ekonomikoak berrikusteak prestazio horien zenbatekoa aldatzea, prestazioak etetea edo amaitzea ekar dezake, artikulu honetan aurreikusten denaren arabera.

5. Artikulu honetako 1. eta 2. ataletan ezarritakoa gorabehera, eta 29.4 artikuluan aurreikusitakoa ezertan eragotzi gabe, gaitasun ekonomikoaren berrikuspena urte bakoitzeko urtarrilean egin daiteke soilik, eta horrek ondorioak izango ditu urte natural osoan.

*29. artikulua. Zenbatekoa aldatzea.*

1. Prestazio ekonomikoen zenbatekoa aldatu egin daiteke, baldin eta, aurreko artikuluak arautzen duen berrikusketaren esparruan, hauetakoren bat gertatu dela ikusten bada:

a) Mendekotasun gradua aldatzea;

b) Titularraren gaitasun ekonomikoa aldatzea, eta aldaketa horrek prestazioaren zenbatekoan eragitea;

c) Egoeran aldaketak gertatzea, eta aldaketa horien ondorioz murrizketak ezartzea zerbitzuak aldi berean erabiltzeagatik, edo ondorioak izatea jada ezartzen diren murrizketa horietan;

d) Ezar daitezkeen kenkariak aldatzea, antzeko izaera eta helburuak dituzten beste prestazio batzuk jasotzeagatik;

e) Zerbitzuaren benetako kostua aldatzea, Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren eta Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan.

Asimismo, en la realización del seguimiento se prestará especial atención a posibles situaciones de violencia machista que se pudieran dar entre las personas cuidadoras y las dependientes.

3. La periodicidad del seguimiento se adecuará a la situación de las personas o familias usuarias y a su evolución. Con carácter general se considera que el seguimiento debería incluir la visita periódica al domicilio de la persona dependiente y que no debería transcurrir un plazo superior a dos años entre una visita domiciliaria y la siguiente.

Esta visita de seguimiento podrá ser sustituida puntualmente por una entrevista personal en las propias oficinas de servicios sociales o por una entrevista telefónica cuando la persona dependiente sea usuaria del Servicio de Ayuda a Domicilio, del Servicio de Centro de Día o del Servicio de Centro Ocupacional.

4. Las personas beneficiarias o nuevas solicitantes de la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar y de la Prestación Económica de Asistencia Personal deberán ser informadas de que la percepción de la prestación económica conlleva la aceptación de esta función de seguimiento y apoyo, de acuerdo con lo previsto en los artículos 10.1 c), 11.2 d) y 13 g), del presente decreto foral.

5. Cada actuación de seguimiento deberá ser registrada en el expediente de la persona beneficiaria y su resultado deberá dar lugar a una valoración del nivel de adecuación de la situación como alta, media o baja.

*Artículo 28. Revisión.*

1. Las prestaciones económicas de dependencia podrán ser objeto de revisión de oficio en cualquier momento.

2. Asimismo, podrán ser revisadas a instancia de parte siempre que se produzca una variación en los requisitos que dieron lugar a la concesión o una variación que pudiera afectar a la determinación de la cuantía.

3. En las revisiones referidas en los apartados 1 y 2, se podrá exigir a las personas titulares de las prestaciones económicas de dependencia que aporten la documentación acreditativa de que se siguen reuniendo los requisitos y cumpliendo las obligaciones correspondientes.

4. La revisión de las prestaciones económicas podrá dar lugar a una modificación de su cuantía, a su suspensión o a su extinción, en los términos previstos en el presente capítulo.

5. No obstante lo establecido en los apartados 1 y 2 del presente artículo, y sin perjuicio de lo previsto en el artículo 29.4, la revisión de la capacidad económica sólo podrá realizarse en el mes de enero de cada año, con efectos para todo el año natural.

*Artículo 29. Modificación de la cuantía.*

1. La cuantía de las prestaciones económicas podrá ser modificada cuando, en el marco de la revisión regulada en el artículo anterior, se constate que se ha producido:

a) Un cambio de grado de dependencia;

b) Una variación en la capacidad económica de la persona titular que incida en la cuantía individualizada de la prestación;

c) Una variación en las circunstancias que pudieran originar la aplicación de las minoraciones previstas por uso simultáneo de servicios, o que pudiera afectar a dichas minoraciones cuando ya se estuvieran aplicando;

d) Una variación en las deducciones aplicables por percepción de otras prestaciones de análoga naturaleza y finalidad;

e) Una variación del coste real del servicio, en el caso de la Prestación Económica de Asistencia Personal y de la Prestación Económica Vinculada al Servicio.

EK\CV GAO-I-2017-08643

2. Prestazioaren zenbatekoa aldatzeak ondorioak izango ditu, aldaketa hori eragin duen arrazoia gertatu eta ondorengo hileko lehenengo egunetik aurrera. Aurrekoa gorabehera, onuradunak ez balu jakinarazi aldaketa eragin duen arrazoia foru dekretu honetako 13.d) artikuluak ezartzen duen hilabeteko epean eta, gainera, aldaketa eragin duen arrazoi horrek prestazioaren zenbatekoa igoko balu, kasu honetan, jakinarazpena izan eta ondorengo hileko lehenengo egunetik izango dira ondorioak.

3. Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, titularraren mendekotasuna baloratzerakoan aldaketaren bat gertatzen bada, bai ofiziozko berrikusketa batean bai pertsonak berak eskatutakoan, eta aldaketa horrek prestazioaren zenbatekoari eragiten badio, prestazioaren aldaketa sortuko da:

a) Zenbatekoa igotzen denean, mendekotasuna baloratzeko eskaera dataren edo ofiziozko berrikusketa dataren ondorengo hileko lehenengo egunetik aurrera;

b) Zenbatekoa murrizten bada, mendekotasuna berriro baloratzeko ebazpen egunaren ondorengo hileko lehenengo egunetik aurrera.

4. Prestazio ekonomikoaren hasierako eskaerari buruzko erabakiaren ondorioz edo urtarrilean eginiko prestazio ekonomikoaren berrikusketaren ondorioz Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 400 baino handiagoa den gaitasun ekonomikoa esleitzen bada, onuradunak edo haren bizikidetza unitateko kideren batek ez duelako aurkeztu PFEZren aitorpena, hori egiteko obligazioa eduki arren, eta, aitorpena geroago aurkezturik, bertan aitortu diren etekinek prestazioaren zenbatekoaren aldaketa ekarriko balute, zenbatekoaren aldaketa hori aitorpena aurkeztearen komunikazio egunaren ondorengo hileko lehenengo egunetik aurrera sortuko da.

*30. artikulua. Aldi baterako etetea.*

Prestazio ekonomikoetarako eskubidea aldi baterako eteteko arrazoiak hauek izan daitezke:

a) Aldi baterako zerbitzuetara sartzea, egoitza zentroetan edo edozein motatako zentro sozio-sanitario edo ospitaleetan, egonaldia bi hilabetetik (jarraian edo ez jarraian) gorakoa denean, urte naturalaren barnean.

b) Prestazioa aitortzeko eskatzen diren baldintzetakoren bat galtzea behin-behingoz.

c) Prestazio ekonomikoa ematearekin batera hartu diren obligazioetakoren bat ez betetzea behin-behingoz.

d) Prozedura zigortzaile baten esparruan eskubidea behin-behingoz eteteko erabakia, 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Mendekotasun Legearen 45.4 artikulua edo 2008ko abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 93.5 artikulua ezarriz.

*31. artikulua. Aldi baterako etenaren ondorioak eta iraupena.*

1. Aldi baterako etenaren ondorioz, mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea galtzen da etenak dirauen bitartean; ondorio horiek, etena eragin duen arrazoia gertatu eta ondorengo hileko lehenengo egunetik gertatzen dira.

2. Orokorrean, etena amaitu egingo da interesdunak egiaztatzen duenean baldintza edo obligazioa betetzen duela (hura behin-behingoz ez betetzeak eragin baitzuen eten hori), eta horrek ondorioak izango ditu egiaztapena aurkeztu eta ondorengo hileko lehenengo egunetik aurrera.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, etenaren arrazoia denean epe barruan ez aurkeztea benetako gastuaren justifikazioa, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan; edo epe barruan ez jakinaraztea profesionala ez den zaintzailearen aldaketa, fami-

2. Los efectos de la modificación de la cuantía de la prestación se producirán desde el primer día del mes siguiente a aquél en que se haya producido la causa determinante de dicha modificación. No obstante lo anterior, si la causa determinante no se hubiera comunicado por parte de la persona beneficiaria en el plazo máximo de un mes a que se refiere el artículo 13.d) del presente decreto foral y, además, dicha causa determinante generase un aumento en la cuantía de la prestación, los efectos se producirían, en este caso, desde el primer día del mes siguiente a aquél en que se hubiera dado dicha comunicación.

3. Sin perjuicio de lo anterior, en aquellos supuestos en los que se produzca un cambio en la valoración de dependencia de la persona titular, bien mediante una revisión de oficio o bien a instancia de la propia persona, y el cambio tenga efectos en la cuantía de la prestación, la modificación de la prestación, se devengará:

a) En caso de aumento de la cuantía, a partir del primer día del mes siguiente a la fecha de solicitud o fecha de revisión de oficio de la valoración de dependencia;

b) En caso de disminución de la cuantía, a partir del primer día del mes siguiente a la fecha de resolución de la nueva valoración de dependencia.

4. Si, como consecuencia de la resolución de una solicitud inicial de prestación económica o de la revisión de la prestación económica en el mes de enero, se asignase una capacidad económica superior al 400 % del Salario Mínimo Interprofesional por no presentar, la persona beneficiaria o algún miembro de su unidad de convivencia, la declaración del IRPF sin estar exenta de declarar, y se comunicase la presentación de la declaración con posterioridad, cuando de los rendimientos declarados en la misma se derivase una variación en la cuantía de la prestación, la modificación de la cuantía se devengará a partir del primer día del mes siguiente al de la presentación de dicha comunicación.

*Artículo 30. Suspensión temporal.*

Podrán ser causas de suspensión temporal del derecho a las prestaciones económicas las siguientes:

a) Acceso al servicio de estancias temporales en centros residenciales o en centros socio sanitarios u hospitalarios de cualquier tipo, a partir de los dos meses de estancia continuados o discontinuados, dentro del año natural.

b) Pérdida temporal de alguno de los requisitos exigidos para el reconocimiento de la prestación.

c) Incumplimiento temporal de alguna de las obligaciones adquiridas con la concesión de la prestación económica.

d) Resolución de suspensión temporal en el marco de un procedimiento sancionador, en aplicación del artículo 45.4 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Dependencia o del artículo 93.5 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

*Artículo 31. Efectos y duración de la suspensión temporal.*

1. La suspensión temporal implica la pérdida del derecho a cobrar la prestación económica de dependencia durante el periodo de suspensión, produciéndose dichos efectos desde el primer día del mes siguiente a la fecha en que se haya producido la causa determinante de la suspensión.

2. Con carácter general, procederá levantar la suspensión con fecha de efectos el primer día del mes siguiente a la fecha de acreditación por parte de la persona interesada del cumplimiento del requisito o de la obligación cuyo incumplimiento temporal hubiera causado la suspensión.

Sin perjuicio de lo anterior, en los casos en los que la razón de la suspensión sea la falta de presentación en plazo de la justificación del gasto real en el caso de la Prestación Económica Vinculada al Servicio y de la Prestación Económica de Asistencia Personal, o la falta de comunicación en plazo del cambio de

EK/CV GAO-I-2017-08643

lia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren kasuan; laguntzaile pertsonalaren aldaketa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan edo zentro aldaketa, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, etenaldia amaitzeak ondorioak izango ditu, hurrenez hurren, gastua justifikatu edo aldaketa jakinarazten den hileko lehenengo egunetik.

3. Aldi baterako etena ezingo da izan sei hilabete baino luzeagoa, eta behin epe hori igaro ondoren automatikoki amaituko da eskubidea.

*32. artikulua. Kautelaz etetea.*

1. Eskubidea berrikusteko, aldatzeko edo amaitzeko prozedura hasi ondoren, mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoaren ordainketa kautelaz etetea erabaki dezake, behinbehineko neurri gisa, eskumena duen organoak, baldin eta prestazio ekonomikoa aitortzeko edo mantentzeko eskatzen diren baldintzetakoren bat desagertu egin dela adierazten duten seinaleak antzeman badira. Kasu horietan, organo horrek erabaki beharko du prestazio ekonomiko horrek aurrera jarraitu behar duen, edo aldatu, eten edo amaitu egin behar den, kautelazko etena erabakitzen denetik hiru hilabeteko epean. Era berean, bidezkoa dena ebatziko du etenaldian kobratzeko eskubideari buruz.

2. Ordainketa kautelaz eten dela jakinaraziko zaio interesdunari, eta honakoa ohartaraziko zaio: kautelazko etena erabaki eta hilabeteko epean ez badu egiaztatzen mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoari eusteko legezko baldintzak betetzen dituela, prestazio hori automatikoki amaituko dela, eta, hala badagokio, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedurari emango zaiola hasiera.

*33. artikulua. Amaitzea.*

Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea amaitzeko arrazoiak dira:

a) Titularraren heriotza.

b) Berariaz uko egitea.

c) Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoarekin bateraezina den zerbitzu edo prestazio ekonomikoren bat jasotzeko eskubidea aitortzea.

d) Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoa aitortzeko eskatzen diren baldintza orokor edo berezietakoren bat galtzea, ezertan eragotzi gabe foru dekretu honek 25.2.b) artikuluan Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren inguruan ezarritakoa.

e) Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoa ematearekin batera hartu diren obligazioak ez betetzea.

f) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren iraupen epea igarotzea, hari dagokion zentroa Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo dagoenean.

g) Titularraren egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo lekualdatzea.

h) Etenaldia segidako sei hilabete baino gehiago luzatzea.

*34. artikulua. Amaitzearen ondorioak.*

1. Eskubidea amaitzearen ondorioz, mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoaren ordainketa amaitu egiten da.

2. Amaitzeak ondorioak izango ditu, amaitze hori eragin duen arrazoia gertatu eta ondorengo hileko lehenengo egunetik aurrera.

*35. artikulua. Eteteko eta amaitzeko erabakia.*

1. Eskubidea eteteko edo amaitzeko aurreko artikuluetan aurreikusiriko arrazoiren bat gertatzen bada, Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departa-

cuidador no profesional en el caso de la Prestación Económica de Cuidados en el Entorno Familiar, del cambio de asistente personal en el caso de la Prestación Económica de Asistencia Personal, o del cambio de centro en el caso de la Prestación Económica Vinculada al Servicio, procederá levantar la suspensión con fecha de efecto el primer día del mes en el que se justifique el gasto o se comunique el cambio, respectivamente.

3. La suspensión temporal no podrá exceder del plazo máximo de seis meses, procediéndose a la extinción automática una vez transcurrido dicho plazo.

*Artículo 32. Suspensión cautelar.*

1. Iniciado un procedimiento de revisión, modificación o extinción, el órgano competente podrá acordar como medida provisional la suspensión cautelar del pago de la prestación económica de dependencia, cuando se hubieran detectado indicios de una situación que implique la pérdida de alguno de los requisitos exigidos para el reconocimiento o mantenimiento de la prestación económica. En tales casos, deberá resolver acerca del mantenimiento de la prestación económica o de su modificación, suspensión o extinción, en el plazo máximo de tres meses a partir de la fecha de la adopción de la suspensión cautelar, resolviéndose lo que proceda sobre el derecho al cobro durante el período suspendido.

2. La suspensión cautelar del pago se notificará a la persona interesada con apercibimiento de que si en un plazo máximo de un mes desde la fecha de adopción de la suspensión cautelar no acreditara el cumplimiento de los requisitos legales para el mantenimiento de la prestación económica de dependencia, se procederá a su extinción automática y al inicio, en su caso, del procedimiento de reintegro de las cantidades indebidamente percibidas.

*Artículo 33. Extinción.*

Serán causas de extinción del derecho a las prestaciones económicas de dependencia las siguientes:

a) Fallecimiento de la persona titular.

b) Renuncia expresa.

c) Reconocimiento del derecho a algún servicio o prestación económica que sea incompatible con la prestación económica de dependencia objeto de la extinción.

d) Pérdida de cualquiera de los requisitos generales o específicos exigidos para el reconocimiento de la prestación económica de dependencia, sin perjuicio de lo dispuesto para la Prestación Económica Vinculada al Servicio en el artículo 25.2.b) del presente decreto foral.

e) Incumplimiento de las obligaciones adquiridas con la concesión de la prestación económica de dependencia.

f) Transcurso del plazo de duración de la Prestación Económica Vinculada al Servicio, cuando el centro al que se vincule esté ubicado fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

g) Traslado de la residencia de la persona titular fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

h) Mantenimiento de una situación de suspensión por un período continuado superior a seis meses.

*Artículo 34. Efectos de la extinción.*

1. La extinción implicará el cese del pago de la prestación económica de dependencia.

2. Los efectos de la extinción se producirán desde el primer día del mes siguiente a la fecha en que se haya producido la causa determinante de la misma.

*Artículo 35. Resolución de suspensión y extinción.*

1. En el supuesto de que concurra alguna de las causas de suspensión o de extinción previstas en los artículos anteriores, la dirección general competente para la gestión de las pres-

mentuan prestazio ekonomikoak kudeatzeko eskumena duen zuzendaritza nagusiak ebazpen arrazoitua hartu beharko du, eta ebazpen hori titularrari jakinarazi.

2. Eskubidea eten edo amaitzeko ebazpenaren kontra dagozkion errekurtsoak jarri ahal izango dira, foru dekretu honen 39. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

VI. KAPITULUA

BIDEGABE JASOTAKO PRESTAZIOAK ITZULTZEA

*36. artikulua. Dirua itzultzeko betebeharra eta Administrazioaren eskubidea preskribatzea.*

1. Eskubidea berrikusi, aldatu, eten edo amaitzeko prozeduraren esparruan, edo beste edozein egoera dela-eta, egiaztatuko balitz mendekotasunaren arloko prestazioren bat bidegabe jaso dela edo bidegabeko zenbatekoan jaso dela, titularrak itzuli egin beharko luke.

Dirua itzultzeko betebehar hori izango da, bai bidegabe jasotako zenbateko horien erruduna onuraduna denean bai Administrazioa denean, 2007ko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, 74. artikuluan arautautakoaren arabera.

2. Aurrekoaren ondorioetarako, benetako kostuak justifikatzeko obligazioa betetzen ez bada (Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan laguntza pertsonalaren benetako kostua, eta Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan zentroaren benetako kostua), justifikatu gabeko aldian jaso diren zenbatekoak bidegabe jasotako zenbatekotzat hartuko dira, eta horiek itzultzeko obligazioa egongo da.

3. Era berean, dirua itzultzeko betebeharra egongo da baldin eta titularrak, kontuan hartu ondoren antzeko izaera eta xedea duten prestazioen atzerapenen ordainketa, foru dekretu honen 6.3. artikuluak aipatzen dituenena, bidegabe edo bidegabeko zenbatekoan jaso bazuen mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoren bat.

4. Administrazioak bidegabeko kobrantzak erreklamatzeko duen eskubidea lau urtetan preskribatuko da, eta epe hori kontatzen hasten da eskubidea gauzatu ahal izan zen egunaren biharamunetik.

*37. artikulua. Dirua itzultzeko prozedura.*

1. Aurreko artikuluan aurreikusiriko edozein kasutan, Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuan prestazio ekonomikoak kudeatzeko eskumena duen zuzendaritza nagusiak dirua itzultzeko prozedurari hasiera emango dio.

2. Behin prozedura hasita, zuzendaritza nagusi horrek prozedura hasi dela jakinaraziko dio titularrari; era berean, prozeduraren arrazoiak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak ere jakinaraziko dizkio. Interesatuek egoki iritzitako alegazioak egin ahal izango dituzte, jakinarazpenetik hamabost egun naturaleko epean.

3. Behin alegazioak jaso ondoren edo alegaziorik egin gabe epea amaitzen denean, zuzendari nagusiak dagokion ebazpena eman eta jakinaraziko du sei hilabeteko epean, mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoa bidegabe edo bidegabeko zenbatekoan jaso ote den erabakitzeko. Ebazpen hori arrazoitua izango da.

4. Prestazioa bidegabe edo bidegabeko zenbatekoan jaso dela irizten bada, aurreko paragrafoan aurreikusitako erabakian adieraziko da dagozkion kopuruak itzuli behar direla, eta bertan ezarriko da, era berean, interesatuak duen epea betebehar hori gauzatzeko. Gainera, jakinaraziko zaio ordainketa zatika egitea eska dezakeela.

taciones económicas en el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa deberá adoptar una resolución motivada y notificarla a la persona titular.

2. Contra la resolución que dicte la suspensión o la extinción, cabe presentar los recursos que correspondan según lo previsto en el artículo 39 del presente decreto foral.

CAPÍTULO VI

REINTEGRO DE PRESTACIONES INDEBIDAS

*Artículo 36. Obligación de reintegro y prescripción del derecho de la Administración.*

1. Si, en el marco de un procedimiento de revisión, modificación, suspensión o extinción, o por cualquier otra circunstancia, se comprobara la percepción indebida o en cuantía indebida de cualquiera de las prestaciones económicas de dependencia, la persona titular deberá reintegrarla.

Dicha obligación de reintegro se da, tanto si la percepción de dichos cobros indebidos es imputable a la persona beneficiaria como si lo es a la Administración, en base a lo regulado en el artículo 74 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. A efectos de lo anterior se considerará que el incumplimiento de la obligación de justificación del coste real de la asistencia personal en el caso de la Prestación Económica de Asistencia Personal y del coste real del centro en el caso de la Prestación Económica Vinculada al Servicio determinará que las cuantías percibidas durante el periodo no justificado tendrán la consideración de cuantías percibidas de forma indebida, quedando sujetas a la obligación de reintegro.

3. La obligación de reintegro también será de aplicación en el caso de que la persona titular, una vez considerado el pago de atrasos correspondientes a las prestaciones de análoga naturaleza y finalidad a que hace referencia el artículo 6.3. del presente decreto foral, resultara haber percibido indebidamente o en cuantía indebida alguna prestación económica de dependencia.

4. El derecho de la Administración a reclamar los cobros indebidos prescribirá a los cuatro años, contándose dicho plazo desde el día siguiente a la fecha en que el derecho pudo ejercitarse.

*Artículo 37. Procedimiento de reintegro.*

1. En cualquiera de los supuestos previstos en el artículo anterior, la dirección general competente para la gestión de las prestaciones económicas en el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa iniciará el procedimiento de reintegro.

2. Iniciado el procedimiento, dicha dirección general notificará a la persona titular la incoación del mismo, las causas que lo fundamentan y sus posibles consecuencias económicas. Las personas interesadas, en el plazo máximo de quince días naturales desde la notificación, podrán formular las alegaciones que estimen pertinentes.

3. Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo señalado sin que se hubiesen formulado, el/la directora/a general dictará y notificará, en el plazo máximo de seis meses, la correspondiente resolución declaratoria o no de la situación de percepción indebida, o en cuantía indebida, de la prestación económica de dependencia, la cual deberá estar motivada.

4. En caso de que se estime la existencia de una situación de percepción indebida o en cuantía indebida, la resolución prevista en el párrafo anterior declarará la obligación de reintegrar las cantidades que procedan, fijando en la misma el plazo máximo del que dispondrá la persona interesada para hacer efectiva dicha obligación e informándole de que, si lo desea, puede solicitar el fraccionamiento del pago.

EK\CV GAO-I-2017-08643

5. Ordaintzen ez badu, eta betearazpen prozedura hasi aurretik, zuzendaritza nagusiak ofizioz jardun dezake, indarrean diren mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoetatik hilero deskontuak edo konpentsazioak eginez: kontzeptu hori dela-eta, prestazio ekonomikoaren zenbatekoaren % 50 era arte atxiki dezake, bidegabe jasotako zenbatekoa osorik itzultzeko behar den adinako denboran.

6. Dirua itzultzea ezartzen duen erabakiaren kontra dagozkion errekurtsoak jarri ahal izango dira, foru dekretu honen 39. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

*38. artikulua. Dirua itzultzeko prozedura iraungitzea.*

Dirua itzultzeko prozeduraren barnean, aurreko artikuluan erabakia emateko aurreikusten den epea amaitu eta berariazko erabakirik eman eta jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da eta hori adierazten duen erabakiak jarduerak artxibatzeko aginduko du. Prozedura geratzearen arrazoia interesatuari egotz badakioke, erabakia hartu eta jakinarazteko epearen kontaketa eten egingo da.

VII. KAPITULUA

ERREKURTSOAK

*39. artikulua. Administrazio errekurtsoak eta auzi errekurtsoak.*

1. Foru dekretu honetan araututako edozein prozeduraren esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuak emaniko ebazpenen kontra (administrazio bidea agortzen ez badute) gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da departamentuko foru diputatuaren aurrean, aurkaratutako ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

2. Administrazio bidea agortuta, ebazpen irmoen kontra dagokion administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke, administrazio bideari amaiera ematen dion egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, 1998ko uztailaren 13ko Legeak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, aurreikusitakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehena.* Laguntza pertsonaleko zerbitzuak ematen dituzten erakundeek izena ematea Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan.

Laguntza pertsonaleko zerbitzuak ematen dituzten erakundeek izena eman behar dute Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan, 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, 51.1 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, haren 53. artikuluarekin lotuta. Izen-emate hori bete beharreko baldintza izango da, Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren esparruan zerbitzuak emateko.

*Bigarrena.* Profesionalak ez diren zaintzaileek borondatez alta ematea Gizarte Segurantzan.

Beraien borondatez, profesionalak ez diren zaintzaileek 2007ko maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuak, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileen Gizarte Segurantza arautzen duenak, ezartzen duen hitzarmen berezia sina dezakete, 2015eko urriaren 30eko 8/2015 Errege Lege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hamalaugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera. Horrela, hitzarmena sinatzen duen zaintzailearen kontura izango dira soilik kotizazioak.

5. En caso de impago, y antes de iniciar el procedimiento ejecutivo, la dirección general podrá proceder de oficio a la compensación o descuento mensual de prestaciones económicas de dependencia en vigor, pudiendo retener por dicho concepto hasta el 50 % de la cuantía de la prestación económica durante el tiempo necesario para la devolución completa de la cuantía indebidamente percibida.

6. Contra la resolución que dicte la obligación de reintegro, cabe presentar los recursos que correspondan, según lo previsto en el artículo 39 del presente decreto foral.

*Artículo 38. Caducidad del procedimiento de reintegro.*

Vencido el plazo previsto en el artículo anterior para dictar resolución en el marco del procedimiento de reintegro, sin que se haya dictado y notificado resolución expresa, se producirá la caducidad del procedimiento y la resolución que la declare ordenará el archivo de las actuaciones. En los supuestos en que el procedimiento se hubiera paralizado por causa imputable a la persona interesada se interrumpirá el cómputo del plazo para resolver y notificar la resolución.

CAPÍTULO VII

RECURSOS

*Artículo 39. Recursos administrativos y judiciales.*

1. Contra las resoluciones que no agoten la vía administrativa dictadas por el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el marco de cualquiera de los procedimientos regulados en el presente decreto foral, podrá interponerse recurso de alzada ante la persona titular del departamento, en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la notificación de la resolución impugnada.

2. Agotada la vía administrativa, contra las resoluciones firmes podrá interponerse el correspondiente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la notificación o publicación del acto que ponga fin a la vía administrativa, en los términos previstos en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.* Inscripción de las entidades prestadoras de servicios de asistencia personal en el Registro Foral de Servicios Sociales.

De conformidad con lo previsto en el artículo 51.1 b) de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en relación con su artículo 53, las entidades prestadoras de servicios de asistencia personal deberán inscribirse en el Registro Foral de Servicios Sociales. Dicha inscripción será condición necesaria para la prestación de servicios en el marco de la Prestación Económica de Asistencia Personal.

*Segunda.* Alta voluntaria en la Seguridad Social de las personas cuidadoras no profesionales.

Con carácter voluntario, las personas cuidadoras no profesionales podrán suscribir el convenio especial regulado en el Real Decreto 615/2007, de 11 de mayo, por el que se regula la Seguridad Social de los cuidadores y cuidadoras de las personas en situación de dependencia, en los términos previstos en la disposición adicional decimocuarta del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, siendo las cotizaciones a cargo exclusivamente de la persona cuidadora que lo suscriba.

EK\CV GAO-I-2017-08643

*Hirugarrena.* Berrikuntza eta ikerketa sustatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak mendekotasun egoeran dauden pertsonen bizi kalitatearekin eta arretarekin loturiko alderdi guztien berrikuntza eta ikerketa sustatuko ditu, eta horretarako ebaluazioak egingo ditu, aldian-aldian, foru dekretu honen xede diren prestazio ekonomikoen norainokoa aztertzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udaleko gizarte zerbitzuekin lankidetzan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehena. Laguntzaile pertsonalen lanbide kualifikazioa.*

1. Laguntzaile pertsonalen lanbide kualifikazioa (foru dekretu honen 11.3 f) artikuluan arautua), eskatuko da foru dekretu honen ondorioetarako datatik, eta, edonola ere, hurrengo bi puntuetan aipatutako salbuespenezko edo behin behineko gaikuntzako prozedurak amaitzean, edo data hori baino lehen hasitako lan esperientzia egiaztatzeko prozedurak edo lanbide ziurtagiriak nahiz lanbide hezkuntzako tituluak eskuratzeko prestakuntza programak amaitzen direnean, eta ondorengo deialdietakoak eta betiere 2022ko abenduaren 31 arte. Horretarako, oinarrian hartuko da 2017ko urriaren 19ko Akordioa, Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren aldeko eta Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren 2008ko azaroaren 27ko akordioa aldatzen duena.

2. Lehenengo puntuan esandakoa gorabehera, kualifikazio hori ez zaie eskatuko laguntzaile pertsonal izateko «salbuespenezko gaikuntza» egiaztatzen dutenei, Eusko Jaurlaritzak edo dagokion autonomia erkidegoak eginiko ziurtagiriaren bidez. Horretarako, 2017ko abenduaren 31 arte, laguntzaile pertsonalaren lanbide kategorian gutxienez 3 urteko esperientzia egiaztatu beharko dute, azken 12 urteetan gutxienez 2.000 ordu lan eginak izanik, edo, gutxieneko esperientzia hori ez dutenek, epe horretan lan egin izana eta egiaztatu nahi diren konpetentziekin loturiko 300 orduko prestakuntza izatea.

3. Era berean, kualifikazio hori ez zaie eskatuko laguntzaile pertsonal izateko «behin-behineko gaikuntza» egiaztatzen dutenei, Eusko Jaurlaritzak edo dagokion autonomia erkidegoak eginiko ziurtagiriaren bidez. Horretarako, 2017ko abenduaren 31 baino lehen laguntzaile pertsonal moduan lana egin dutenek, baino aurreko puntuan aipatutako gutxienezko 3 urteko esperientzia edo 300 orduko prestakuntza egiaztatu ezin dutelarik, konpromisoa hartu beharko dute, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, Estatuan edo Autonomia Erkidegoan deitzen diren lan esperientzia ebaluatu eta egiaztatzeko prozesuetan parte hartuko dutela, edo dagokion lanbide ziurtagiriari loturiko edo lanbide heziketako tituluei loturiko prestakuntza egingo dutela, 2022ko abenduaren 31 bitarte.

*Bigarrena. Profesionalak ez diren zaintzaileen prestakuntza.*

Mendeko pertsonak zaintzen dituzten zaintzaile ez profesionalen kasuan, foru dekretu honen ondorioetarako datan zaintza horiek ematen ari badira Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren esparruan, foru dekretu honen 13 h) artikuluan ezarritako prestakuntza beharra ez da eskatuko, harik eta gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuak berariaz hori eskatzen dien arte. Eskaera hori egiten den unetik, sei hilabeteko epea egongo da obligazio hori betetzeko.

*Hirugarrena. Profesionala ez den zaintzaileari eskatzen zaizkion adina eta gaitasunaren arloko baldintzetan izan diren aldaketetara egokitzeko epea.*

*Tercera.* Promoción de la innovación y la investigación.

La Diputación Foral de Gipuzkoa promoverá la innovación y la investigación en todos los aspectos relacionados con la calidad de vida y atención a las personas en situación de dependencia, y para ello realizará evaluaciones periódicas del alcance de las prestaciones económicas de dependencia objeto del presente decreto foral, en colaboración con los servicios sociales municipales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera. Cualificación profesional de las y los asistentes personales.*

1. La cualificación profesional de las y los asistentes personales regulada en el artículo 11.3 f) del presente decreto foral será exigible desde la fecha de efectividad del mismo, y, en todo caso, cuando finalicen los procedimientos de habilitación excepcional o provisional a que se refieren los dos puntos siguientes, o cuando finalicen los procesos de acreditación de la experiencia laboral, o los programas de formación vinculada a los certificados de profesionalidad o títulos de formación profesional que se hayan iniciado antes de esa fecha y los que se convoquen con posterioridad a la misma y hasta el 31 de diciembre de 2022, en base a lo regulado en el Acuerdo del 19 de octubre de 2017, de Modificación del Acuerdo del Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia del 27 de noviembre de 2008.

2. No obstante lo dicho en el primer punto, dicha cualificación no será exigible para las personas que acrediten, mediante el certificado correspondiente emitido por el Gobierno Vasco, u otras Comunidades Autónomas, disponer de la «habilitación excepcional» para ejercer de asistente personal por cumplir, a fecha de 31 de diciembre de 2017, el requisito de acreditar una experiencia de al menos 3 años, con un mínimo de 2.000 horas trabajadas en los últimos 12 años, en la categoría profesional de asistente personal o, sin alcanzar el mínimo de experiencia exigida, haber trabajado y tener un mínimo de 300 horas de formación relacionada con las competencias profesionales que se quieran acreditar en el mismo período.

3. Asimismo, tampoco será exigible dicha cualificación profesional a las personas que acrediten, mediante el certificado correspondiente emitido por el Gobierno Vasco, u otras Comunidades Autónomas, disponer de la «habilitación provisional» para ejercer de asistente personal por, habiendo trabajado como asistente personal con anterioridad al 31 de diciembre de 2017 y no cumpliendo el requisito de experiencia laboral de 3 años o 300 horas de formación referido en el punto anterior, comprometerse, mediante declaración responsable, a participar en los procesos de evaluación y acreditación de la experiencia laboral que se convoquen desde el ámbito estatal o autonómico, o a realizar la formación vinculada al correspondiente certificado de profesionalidad o títulos de formación profesional, y hasta el 31 de diciembre de 2022.

*Segunda. Formación de las personas cuidadoras no profesionales.*

En el caso de las personas cuidadoras no profesionales de personas con dependencia que, a la fecha de efectividad del presente decreto foral ya estuvieran prestando dichos cuidados en el marco de la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar, la obligación de formación establecida en el artículo 13 h) del presente decreto foral no será exigible hasta que el departamento competente en materia de servicios sociales les requiera expresamente para ello, disponiendo de un plazo de 6 meses a partir de la fecha de tal requerimiento para dar cumplimiento a dicha obligación.

*Tercera. Plazo para adaptarse a los cambios introducidos en los requisitos de edad y capacidad exigidos a la persona cuidadora no profesional.*

EK\CV GAO-I-2017-08643

1. Foru dekretu honen ondorioetarako datan mendeko pertsonak zaintzen dituzten zaintzaile ez profesionalek (mendeko pertsona hori jada Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomiko baten titular denean) ez badituzte betetzen foru dekretu honen 10. artikuluko 2 a) eta 2 e) ataletan aurreikusiriko baldintza berriak, adinaren eta gaitasunaren ingurukoak, titularrek urtebeteko epea izango dute foru dekretuaren ondorioetarako datatik, nahiz zaintzailea aldatzeko nahiz beste prestazio ekonomiko edo zerbitzu bat eskatzeko.

2. Aurreko atalean ezarritako epea amaitzen denean, Gipuzkoako Foru Aldundiak amaiera emango dio Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikorako eskubideari, araudi berrira egokitzen ez direnen kasuan.

*Laugarrena. Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoen zenbatekoak berriro kalkulatzea.*

Behin mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoei dagozkien gehieneko zenbatekoak ezarri ondoren, foru dekretu honen 14. artikuluak arauturikoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuak ofizioz kalkulatuko ditu berriro foru dekretu honen ondorioetarako datan zeuden prestazio ekonomikoen zenbatekoak, araudi berrira egokitzeko. Zenbatekoak berriro kalkulatzeak ekar ditzakeen aldaketak foru dekretu honen ondorioetarako datan gauzatuko dira.

## XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratzen dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontrakoa dioten xedapenak, maila berekoak edo beheragokoak direnean, bereziki, 2018ko urtarrilaren 1etik, 2009ko uztailaren 21eko 25/2009 Foru Dekretua, 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituena.

## AMAIERAKO XEDAPENAK

*Lehena. 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horren bidez arautzen da, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa.*

2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoari buruzkoak, 22. artikuluaren 1. atala aldatu da, c) hizkia gehitu da, era honetan:

«c) Baldin eta, gizarte zerbitzuen foru sareko egoitza plaza bat eskuratzeko itxaronaldian, eskatzaileak egoitza plaza pribatu eta hitzartu gabea erabili badu eta horretarako Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren onuradun izan bada, zerbitzu horretan izan duen egonaldia kontuan izango da, foru sareko plaza batean sartzerakoan, haren ekarpen ekonomikoa zehazteari begira: gehieneko ekarpena ordaindu beharreko egun kopuruari, zeina 1. atal honetako a) hizkiaren arabera kalkulatuko baita, kenduko zaio egoitza zerbitzu pribatu eta ez hitzartuan igarotako egun kopurua, prestazio ekonomiko horren barruan egiaztatuta dagoena.»

*Bigarrena. Ordezko araubidea.*

1. Foru dekretu honetan berariaz aurreikusten ez den guztirako, ordezko gisa hauek izango dira aplikagarri: 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, ezartzen dituen xedapenak eta 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuena.

2. Izaera orokorrarekin, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, aurreikusten dituenak izango dira aplikagarri ordezko gisa.

1. Cuando, a la fecha de efectividad del presente decreto foral, las personas cuidadoras no profesionales de personas dependientes que ya sean titulares de una Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar no cumplan los nuevos requisitos de edad y capacidad previstos en los apartados 2 a) y 2 e) del artículo 10 del presente decreto foral, las personas titulares dispondrán de un plazo de un año desde dicha fecha de efectividad, para o bien cambiar de persona cuidadora, o bien solicitar el acceso a otra prestación económica o servicio.

2. Transcurrido el plazo establecido en el apartado anterior, la Diputación Foral de Gipuzkoa procederá a extinguir el derecho a la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar a quienes no se ajusten a la nueva regulación.

*Cuarta. Recálculo de cuantías de las prestaciones económicas de dependencia.*

Una vez determinadas las cuantías máximas correspondientes a las prestaciones económicas de dependencia, en los términos regulados en el artículo 14 del presente decreto foral, el departamento competente en materia de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa realizará de oficio el recálculo de las cuantías correspondientes a las prestaciones económicas de dependencia vigentes a la fecha de efectividad del presente decreto foral, para conformarlas a la nueva regulación. Las modificaciones a las que pueda dar lugar este recálculo se harán efectivas en la fecha de efectividad del presente decreto foral.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente decreto foral y expresamente, desde el 1 de enero de 2018, el Decreto Foral 25/2009, de 21 de julio, por el que se regulan las prestaciones económicas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

## DISPOSICIONES FINALES

*Primera. Modificación del Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, por el que se regula el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

Se modifica el apartado 1 del artículo 22 del Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, por el que se regula el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, añadiendo una nueva letra c), en los siguientes términos:

«c) Si, durante el periodo de espera para el acceso a una plaza residencial de la red foral de servicios sociales, la persona solicitante hubiera optado por hacer uso de una plaza residencial privada no concertada y se hubiera beneficiado para ello de la Prestación Económica Vinculada al Servicio, su estancia en dicho servicio se tendrá en cuenta, a la hora de ingresar en una plaza de la red foral, de cara a la determinación de su aportación económica: al número de días que corresponda pagar la aportación máxima calculado según la letra a) del presente apartado 1 se le restará el número de días transcurridos en el servicio residencial privado no concertado, acreditados en el marco de dicha prestación económica.»

*Segunda. Régimen supletorio.*

1. Para todo lo que no se prevea expresamente en el presente decreto foral, serán de aplicación supletoria las disposiciones de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia y la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

2. Con carácter general, serán de aplicación supletoria las previsiones de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EK\CV GAO-I-2017-08643

3. Foru dekretu honetan berariazko arauak aipatzen direnean (Europakoak, Estatukoak, Autonomiakoak edo Foralak), ulertu behar da arautzen dituzten gaien inguruan une bakoitzean indarrean dagoen araudiari buruzkoak direla.

*Hirugarrena. Erregelamendu bidezko garapena.*

Gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren xedapen eta egintza guztiak eman ditzala, foru dekretu hau ezarri eta garatzeko.

*Laugarrena. Indarrean jartzea eta ondorioak.*

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta ondorioak izango ditu 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Donostia, 2017ko abenduaren 12a.

DIPUTATU NAGUSIA
Markel Olano Arrese.

GIZARTE POLITIKAKO
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Maite Peña López. (8643)

3. Las referencias realizadas en el presente decreto foral a normas específicas, ya sean europeas, estatales, autonómicas o forales, deberán entenderse referidas a la normativa que, en cada momento, se encuentre vigente en relación con las materias que respectivamente regulen.

*Tercera. Desarrollo reglamentario.*

Se faculta a la persona titular del departamento competente en materia de servicios sociales para dictar cuantas disposiciones y actos sean necesarios para la aplicación y desarrollo del presente decreto foral.

*Cuarta. Entrada en vigor y efectos.*

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y surtirá efectos a partir del día 1 de enero de 2018.

San Sebastián, a 12 de diciembre de 2017.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

LA DIPUTADA FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
POLÍTICAS SOCIALES,
Maite Peña López. (8643)

EK\CV GAO-I-2017-08643

I. ERANSKINA | ANEXO I

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Políticas Sociales

# I. ERANSKINA

## ZAINTZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Nik, ……………………………………..…………………………………….(e)k, NAN/AIZ …..…………. zenbakia dudanak, eta ……………….. NAN/AIZ zenbakia duen ……...……………………………..…………………………..……..…(r)en zaintzaile ez profesionala naizenez,

**KONPROMISO HAU HARTZEN DUT:**

- Beharrezkoak diren eginkizunak burutuko ditudala, mendekotasun egoeran dagoen pertsonari behar bezalako arreta eta zaintzak emateko.
- Sei hilabetean eskuratuko dudala mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta emateko oinarrizko prestakuntza jaso izanaren ziurtagiria. Prestakuntza hori aipatzen da Gipuzkoan mendekotasunaren arloko prestazioak arautzen dituen dekretuaren II. eranskinean.
- Modu eraginkorrean erraztuko ditudala gizarte zerbitzuetako profesionalek etxera egindako bisitak, bai hasierako bisitak bai jarraipenekoak. Bisita horien helburua izango da, hain zuzen ere, egiaztatzea arreta benetan ematen dela eta mendeko pertsonaren beharretara egokitzen dela.
- Parte hartuko dudala egoerari jarraipena egiteko gizarte zerbitzuekin ezar litezkeen elkarrizketetan.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraziko diodala prestazioa aldatzea, etetea edo amaitzea eragin dezakeen edozein aldaketari buruzko berririk badut, bai zuzenean bai dagokidan udaleko gizarte zerbitzuen bidez, aldaketa izan den egunetik hilabeteko epean; era berean, nik neuk edo prestazioaren titularrak izandako edozein etxebizitza edo errolda aldaketa jakinaraziko diodala.

**ETA HAU ADIERAZTEN DUT:**

- Adinez nagusia naizela, eta mendeko pertsonak II. edo III. Graduko mendekotasuna duen kasuan, betetzen dudala 85 urte baino gehiago ez izatearen baldintza.
- Mendeko pertsonaren etxebizitza berean bizi naizela eta bertan nagoela erroldatuta.
- Ahaidetasun harremana (edo baliokidea) dudala mendeko pertsonarekin, edo harreman pertsonala, bost urte baino gehiagoko bizikidetzagatik.
- Zaintzak eta arreta ez ditudala kontratu baten esparruan ematen, eta ez dudala jarduten profesional gisa.
- Behar adinako gaitasun fisikoa eta psikikoa dudala, modu egokian emateko mendeko pertsonak behar dituen zaintzak eta laguntza.
- Ez nagoela aitortuta mendeko gisa, eta ez dudala % 65eko desgaitasuna edo handiagoa.
- Behar adinako denbora dudala, mendeko pertsonaren arreta neure gain hartzeko.

Tokia eta data, Sinadura

……………………………………………………………………………….. …………………………

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Políticas Sociales

## ANEXO I

## DECLARACIÓN RESPONSABLE DE LA PERSONA CUIDADORA

…………………………………..……………………………………..., con DNI/NIE …..………….., en mi condición de persona cuidadora no profesional de ………..……………………………….…………………………..…….…, con DNI/NIE ………….....…...,

**ME COMPROMETO A**:

- Realizar las funciones necesarias para la correcta atención y cuidado de la persona en situación de dependencia.
- Obtener, en el plazo de 6 meses, el certificado de haber recibido la formación básica de atención a personas con dependencia a que hace referencia el anexo II del decreto que regula las prestaciones económicas de dependencia en Gipuzkoa.
- Facilitar el acceso efectivo a visitas domiciliarias, tanto iniciales como de seguimiento, por parte de profesionales de los servicios sociales, orientadas a comprobar que la atención se presta realmente y que es adecuada a las necesidades de la persona dependiente.
- Participar en las entrevistas con los servicios sociales que puedan establecerse para el seguimiento de la situación.
- Comunicar a la Diputación Foral de Gipuzkoa, bien directamente o bien a través de los servicios sociales municipales correspondientes, y en el plazo de un mes desde la fecha en que se produjera, cualquier variación, de que tuviera conocimiento, que pudiera dar lugar a la modificación, suspensión o extinción de la prestación, así como cualquier cambio de domicilio o de empadronamiento propio o del titular de la prestación.

**Y DECLARO QUE**:

- Soy mayor de edad y cumplo, para el caso de que la persona dependiente tenga un Grado II o III de dependencia, el requisito de no tener más de 85 años.
- Convivo y estoy empadronado/a en el mismo domicilio que la persona dependiente.
- Tengo un vínculo de parentesco (o asimilado), o vínculo personal por convivencia superior a cinco años, con la persona dependiente.
- Los cuidados y la atención que presto no se desarrollan en un marco contractual ni actúo como una persona profesional.
- Tengo la capacidad física y psíquica suficiente para desarrollar adecuadamente las funciones de cuidado y apoyo que precise la persona dependiente.
- No tengo reconocida valoración de dependencia ni un grado de discapacidad igual o superior al 65%.
- Dispongo de tiempo suficiente para asumir la atención a la persona dependiente.

Lugar y fecha, Firma

…………………………………………………………………………….. …………………………

EK\CV GAO-I-2017-08643

ANEXO II

ZAINTZAILEEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZA FAMILIA INGURUNEKO ZAINTZETARAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAREN ESPARRUAN. XEDEAK, EZAUGARRIAK ETA EDUKIAK

1. *Prestakuntzaren xedeak:*

— Zaintzaileei oinarrizko ezagupen batzuk ematea, mendeko pertsonen zaintza soziosanitarioak hobetzeko.

— Zaintzaileek prozedura eta estrategia egokienak erabil ditzaten bultzatzea, hain zuzen ere, prozedura eta estrategia horiei esker mendeko pertsonaren autonomia eta ingurunearekin dituen harremanak mantendu eta hobetzeko.

— Informazioa eskaintzea laguntza produktuei buruz, hain zuzen ere, produktu horiei esker mendeko pertsonak bere burua hobeto zainduko du eta bizimodu autonomoa erraztuko da.

— Beren burua zaintzeko estrategiak eta gaitasunak eskaintzea zaintzaileei.

— Baliabide soziosanitario egokienei buruzko informazioa eta orientabidea eskaintzea, hain zuzen ere, mendeko pertsonen zaintzak, arreta eta bizimodu autonomoa bermatzeko.

2. *Prestakuntzaren ezaugarriak:*

— Prestakuntzaren gutxieneko iraupena 16 ordukoa izango da, egunean gehienez ere 2 ordu.

— Ikastaroaren ziurtagiria eskuratzeko ez da izango beharrezkoa azterketa bat egitea; nahikoa izango da egun guztietan bertaratu eta interesa agertzea.

— Prestakuntza hau euskaraz nahiz gaztelaniaz egin ahal izango da.

3. *Prestakuntzaren edukiak:*

1. Zaintzailearen garapen pertsonala.

— Zaintzaile ez profesionalaren eginkizuna. Mendeko pertsona bat zaintzeak familian eta norberarengan duen eragina.

— Mendeko pertsonarekiko eta gizarte ingurunearekiko harremanak.

— Mendeko pertsonaren autonomia sustatzea.

— Komunikazio gaitasunak: pertsona artekoa, sentimenduak adieraztea, asertibotasuna, enpatia eta entzute aktiboa, zaintzaileari eta inguruneari dagokionez.

— Familian zaintzak banatzearen garrantzia.

— Zaintzailearen aisialdia eta denbora librea.

2. Osasun eta higiene neurriak zaintzailearentzat.

— Etxeko arriskuak prebenitzea.

— Lesioak prebenitzea, bizkarrezurraren higienea.

— Zaintzailearen estresa eta gainkarga prebenitzea.

— Nork bere burua zaintzeko trebetasunak eta estrategiak.

3. Zaintzarako gaitasunak eta trebetasunak.

— Oinarrizko zaintzak, pertsonaren ezaugarrien arabera aldatzen direnak.

— Mendeko pertsonaren higiene eta garbiketaren arloko zaintzak.

— Eguneroko bizitzako jarduerak.

— Mugitzea, mendekotasun graduaren arabera. Ibiltzea eta lekualdatzeak.

— Jarreraz aldatzea.

— Etxebizitzako gelak zaindu eta antolatzea, eta haien arreta. Egokitzapena eta diseinua.

ANEXO II

FORMACIÓN BÁSICA DE LAS PERSONAS CUIDADORAS EN EL MARCO DE LA PRESTACIÓN ECONÓMICA DE CUIDADOS EN EL ENTORNO FAMILIAR. OBJETIVOS, CARACTERÍSTICAS Y CONTENIDOS

1. *Objetivos de la formación:*

— Facilitar unos conocimientos básicos a las personas cuidadoras para mejorar el cuidado socio-sanitario de las personas dependientes.

— Promover que las personas cuidadoras apliquen los procedimientos y estrategias más adecuadas para mantener y mejorar la autonomía personal de la persona dependiente y sus relaciones con el entorno.

— Ofrecer información sobre productos de apoyo que propicien el autocuidado de la persona dependiente y la vida autónoma de la persona dependiente.

— Ofrecer estrategias y habilidades de autocuidado a las personas cuidadoras.

— Informar y orientar sobre los recursos socio-sanitarios más adecuados para garantizar los cuidados, la asistencia y la vida autónoma de las personas dependientes.

2. *Características de la formación:*

— La formación tendrá una duración mínima de 16 horas, con un máximo de 2 horas diarias.

— Para obtener la acreditación del curso no será necesaria la realización de un examen, siendo suficiente con acudir a todas las clases y mostrar interés.

— Esta formación podrá cursarse tanto en euskera como en castellano.

3. *Contenidos de la formación:*

1. Desarrollo personal de la persona cuidadora.

— Papel de la persona cuidadora no profesional. Impacto familiar y personal del cuidado de una persona dependiente.

— Relaciones con la persona dependiente y el entorno social.

— Estímulo de la autonomía personal de la persona dependiente.

— Habilidades de comunicación: interpersonal, expresión de sentimientos, asertividad, empatía y escucha activa, en relación a la persona cuidadora y al entorno.

— Importancia del reparto de los cuidados en el ámbito familiar.

— Ocio y tiempo libre de la persona cuidadora.

2. Medidas higiénico-sanitarias para la persona cuidadora.

— Prevención de riesgos en el domicilio.

— Prevención de lesiones, higiene de la columna.

— Prevención del estrés y la sobrecarga de la persona cuidadora.

— Habilidades y estrategias de autocuidado.

3. Competencias y habilidades para el cuidado.

— Cuidados básicos, variables en función de las características de la persona.

— Cuidados de higiene y aseo de la persona dependiente.

— Actividades de la vida diaria.

— Movilizaciones según grado de dependencia. Deambulación y traslados.

— Cambios posturales.

— Cuidado, organización y atención de las estancias de la vivienda. Adaptación y diseño.

EK\CV GAO-I-2017-08643

— Mendeko pertsonaren ingurunea garbitzea, gelak eta tresnak.

— Mendeko pertsonaren janaria: elikadura eta elikagaien higienea eta prestakuntza.

— Mugitzeko eta eguneroko bizitzan laguntza produktuak erabiltzea: garabiak, ohe artikulatuak, garbitasunerako tresnak, etab.

*4. Osasun arloko zaintzak.*

— Larruazalaren osotasuna zaintzea: ultzerak eta eskarak prebenitu eta tratatzea.

— Botikak ematea, zundak eta kolostomiak zaintzea.

— Osasun larrialdietako jarduera. Lehen laguntza.

*5. Zaintza psikosoziala.*

— Mendeko pertsonaren ezaugarriak eta behar psikologikoak.

— Mendeko pertsonaren jarrera arazoei eta krisi egoerei aurre egiteko teknikak, prozedurak eta estrategiak.

— Funtzio kognitiboak mantendu eta haietan trebatzea eguneroko egoeretan:

Memoria, arreta, espazioan orientatzea, denbora orientazioa eta orientazio pertsonala, arrazoiketa.

Esku hartzeko estrategiak egitea.

— Mendeko pertsonaren erabaki askea eta ahalik eta autonomiarik handiena errazteko teknikak.

— Gizarte harremana sustatzeko teknikak. Laguntzeko eta gizarte harremanerako ekintzak. Esku hartzeko estrategiak.

— Mendeko pertsonaren aisialdia eta denbora librea.

*6. Zaintzak egoera berezietan.*

— Arretaren inguruan kontuan izan beharreko alderdirik garrantzitsuenak, tipologia desberdinen arabera: dementzia, desgaitasun fisikoa, adimen desgaitasuna edo larria den gaixotasun fisikoa edo buruko gaixotasuna.

*7. Gizarte baliabideak, laguntza produktuak eta ingurunea egokitzea.*

— Gizarte eta osasun sareari buruzko informazioa, bai esparru publikokoa bai pribatukoa.

— Laguntza produktuak eta laguntzak etxebizitza edo ibilgailua egokitzeko; horiei esker, mendeko pertsonen zaintzak hobetu daitezke eta haien autonomia sustatu.

*8. Arreta ematen zaien pertsonen gaitasun pertsonalei buruzko alderdi legalak eta etikoak.*

— Beren burua zaindu ezin duten mendeko pertsonak babesteko eta ordezkatzeko legeak: ordezkaritza, egitatezko zaintza, ezgaitzea eta tutoretza.

— Aurretiazko borondateak, bai osasun arloan bai arlo sozialean.

— Limpieza del entorno de la persona dependiente, habitaciones y utensilios.

— La comida de la persona dependiente: nutrición y elaboración e higiene alimentaria.

— Manejo de productos de apoyo para la movilidad y la vida diaria: grúas, camas articuladas, elementos para el aseo, etc.

*4. Cuidados sanitarios.*

— Cuidados de la integridad cutánea: prevención y tratamiento de úlceras y escaras.

— Administración de medicamentos, cuidados de sondas y colostomías.

— Actuación en caso de urgencias sanitarias. Primeros auxilios.

*5. Cuidado psicosocial.*

— Características y necesidades psicológicas de la persona dependiente.

— Técnicas, procedimientos y estrategias de intervención ante problemas de conducta y situaciones de crisis de la persona dependiente.

— Mantenimiento y entrenamiento de las funciones cognitivas en situaciones cotidianas:

Memoria, atención, orientación espacial, temporal y personal, razonamiento.

Elaboración de estrategias de intervención.

— Técnicas para favorecer la libre determinación y la máxima autonomía individual de la persona dependiente.

— Técnicas para favorecer la relación social. Actividades de acompañamiento y de relación social. Estrategias de intervención.

— El ocio y el tiempo libre de la persona dependiente.

*6. Cuidados en situaciones específicas.*

— Aspectos más importantes a tener en cuenta en la atención, en función de las diferentes tipologías: demencia, discapacidad física, discapacidad intelectual o enfermedad física o mental grave.

*7. Recursos sociales, productos de apoyo y adecuación del entorno.*

— Información sobre la red social y sanitaria asistencial existente, tanto en el ámbito público como privado.

— Productos de apoyo y ayudas para la adaptación de la vivienda o el vehículo que puedan facilitar los cuidados de las personas dependientes o fomentar su autonomía.

*8. Aspectos legales y éticos relativos a las capacidades personales de las personas atendidas.*

— Figuras legales de protección y representación existentes para las personas dependientes que no puedan autogobernarse: representación, guarda de hecho, incapacitación y tutela.

— Voluntades anticipadas, tanto en el ámbito sanitario como social.

EK\CV GAO-I-2017-08643